1919·2019

ARGIA

“Zigorrak eraldaketa demokratikorako palanka gisa erabiliko ditugu”

JORDI CUIXART | **21**
ÒMNIUM CULTURALEKO LEHENDAKARI PRESOA

#2.660 | 2019/10/06 | 3,90 €

Afrikarrak enplegurik ez daukatelako datoz Europara
10 | NET HURBIL

Rikardo Arregi, oraingoa oroz gain
26 | EUSKARA

Allenderen espiritua ikasleriak gorpuztu du Txilen
34 | NAZIOARTEA

Ø200

SLOW · KAFETEGIA

BERTAKOA · GARAIKOA · EKOLOGIKOA
GEUK PRESTATUA · ERANTZUKIZUN SOZIALA

Altuna baserria · Arrillaga Txiki baserria · Basatxerri · Behieko Sabekoetxea · Biok gazta
Bodegas Lezaun · Carlos Petrina · El Alcaraván · Ertxieko · Euskal Herria Esnea
Euskal Untxia · Goi Eko Haragia · Karabeleko · Goiti okindegia · Gumendi
Larreta Esnekiak · Lur Lan · Lurrarte · Mahala · Nabarreko · Orexa gazta
Pikunieta baserria · The Loaf · Tolosako Merkatua · Urrullo agroaldea · Zalmendi

---

ORDUTEGIA | Astelehenetik ostiralera | KAFETEGIA 07:00-17:00 | JATETXEA 12:30-15:20
Hernani, Gipuzkoa | 943 265 022 | www.diametro200.com

ARGIA

2.660 zenbakia I Urriak 6, 2019

Panorama

04 I ASTEKO ARGAZKIA
06 I AKTUALITATEA
07 I HUMANITATEAREN UNE GORENAK
07 I EZ HANKA EZ BURU
08 I EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ILUSTRAZIOA:
FELIPE DE SAN PEDRO / LA DIRECTA

Iritziak

17 I ENDIKA ALABORT AMUNDARAIN
18 I JUNE FERNÁNDEZ
19 I JAKES BORTAIRU
19 I ITXARO BORDA
20 I ANDONI MUJIKA ULAZIA

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

38 I BIZI BARATZEA
40 I ARGIA KOMUNITATEA
42 I DENBORAREN MAKINA
43 I DENBORA-PASAK
48 I KULTUR-KRITIKAK
50 I ZUZENEKO EMANALDIA
52 I ARGI-KONTRA: MERCÈ PANYELLA, SANDRA MARTÍNEZ
54 I BERANDUEGI

34 I **IKASLE MUGIMENDUA TXILEN**
Gobernuak baldintzatzera iritsi diren mobilizazioek mundu mailako sona eman diote Hego Amerikako herrialde honetako ikasleriari. Ikasturte beroa iragarri dute hasi berri duguna. Iñaut Gonzaldez de Mataukok mugimendu honen ibilbideari errepasoa egin dio, Allenderen egunetatik gaur egun arte.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 I NET HURBIL
Afrikarrak ez datoz Europara presio demografikoagatik: enplegurik ez daukatelako baizik
Pello Zubiria Kamino

12 I LUCÍA LIJTMAER
"Sare sozialetan, hausnartu ordez, etengabe posizionatu beharra dago"
Danele Sarriugarte Mochales

21 I JORDI CUIXART, PRESO POLITIKOA
"Ez daukagu hamar urtetik beherako zigorrik ez espero izateko motiborik"
Gemma Garcia Fabrega / La Directa

26 I EUSKARA
Rikardo Arregi oraingoa oroz gain
Miel A. Elustondo

31 I ARGIA-REN BAZKARIA ARABAR ERRIOXAN
Topa beste ehun urteren alde!
Estitxu Eizagirre

44 I KULTURA I ANTTON ETA JULEN TELLERIA
"ARGIAren irakurle askok ere 'Gran Hermano' ikusiko du"
Lander Arretxea Bereziartua

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNDUA)

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Iñaut Gonzalez de Matauko, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Z. Oleaga
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.

Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA honako enpresekin batera:

antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza interaktiboa
ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuk lizentzia hau ez izatea.

Albo-kalteak gara behe-laino artean

Irailak 18. Qalateko ospitaleko ingurunean. Lehergailuz betetako kamioi batek 39 hildako eta 184 zauritu eragin ditu gaixo, bisitari eta medikuen artean.

Irailak 22. Musa Qalan. Lagun eta senideak autobus eta autoetan doaz ezkontzara. "Lehen munduan" egindako bonba batek zenbaki bilakatu ditu betiko: 40 hildako, 13 zauritu.

Irailak 19. AEBetako Nevadan. Botoia sakatu du militar gazteak. 13.000 bat kilometrora, Wazir Tangiko pinazi zelaietan 30 nekazariren gorputzak mila zati egin dira.

"Aztertzen ari gara ea albo-kalterik izan ote den", dio nazioarteko koalizioaren eledun Sonny Leggett koronelak. Nazio Batuen Erakundeak dio 2019ko lehen erdian 4.000 zibil hil edo zauritu dituztela Afganistanen.

PARMIZ ROMA | ALAMY **AXIER LOPEZ**

EROMENA DA, EGUNERO IRAKASLEAK DEIKA DITUGU, ETA GU SALDUTA GAUDE. LAKUAN EZ DIRA GAI IZAN ARAZO PILA BAT EMATEN ARI DELA JAKINDA APLIKAZIO TELEMATIKO BIDEZKO ESLEIPENAK GELDITU BEHAR ZIRENEAN GELDITZEKO. ARDURAGABEKERIA HUTSA

Hezkuntza Delegaritzako langilea
ARGIA.EUS

ZORTZI ORDUZ ZUTIK EGON BEHAR ETA HAURDUNARENTZAT GURE LANA EZ DUTE ARRISKUTSUTZAT

Saioa Fernandez, Bizkaiko metalgintzako langilea
ARGIA.EUS

BOST URTEKO HAUR BAT ETOR DAKIZUKE ALEMANIAKO PINTORE BATEN ERREFERENTZIAREKIN, BAINA GERO EZ DAKI NOR DEN JOSE LUIS ZUMETA

Gotzon Barandiaran
HIK HASI

AITA MARI ERRESKATE ONTZIAK ITSASORATZEKO BALDINTZA GUZTIAK BETETZEN DITU; ESPAINIAKO GOBERNUAREN ISILTASUN ADMINISTRATIBOAK BLOKEATUTA DAUKA ITSASONTZIA, LAGUNTZA GELDIARAZI NAHI DUTELAKO. PEDRO SÁNCHEZ LASAIAGO GERATUKO LITZATEKE AITA MARI PASAIAN HONDORATUKO BALITZ

Iñigo Mijangos,
Itsas Salbamendu Humanitarioa

JUDIMENDIKO GAZTE ASANBLADA

Joko aretoa ixtea lortu dute Judimendin

TOPATU.EUS

Judimendik Joko Aretoari Ez dinamikak jakinarazi du Gasteizko auzo horretako joko aretoak itxi egin duela. Bi urte daramatzate auzoan negozioaren aurka borrokan. Azaldu dutenez, aretoak duela bi hilabete itxi zuen. Informazio zehatzik ez zuten ezagutzen auzokideek, baina duela aste batzuk negozioaren etetearen arrazoien berri izan zuten. Gazteen arabera, joko aretoaren jabea negozioa ireki ezinean dabil, ez baitu tabernaren kudeaketaz arduratu nahi duenik aurkitzen.

Auzoko beste taberna batzuen jabeekin harremanetan jarri omen da enpresaria, eta azken horrek dinamikako kideei bilera eskatu die, joko aretoaren aurkako dinamikaz jakitun, akordio batera iritsi nahian. Auzotarrek jakinarazi dute ez dutela ezer adosteko asmorik: "Argi utzi nahi dugu Judimendik Joko Aretoari Ez-eko kideok ez dugula inolako akordiorik egingo jokoa iturri ekonomiko gisa baliatzen duten enpresariekin".

Instituzioek eta eragile sozialek joko aretoen arazoan duten erantzukizuna azpimarratu dute: "Ez ezazue zuen burua zuritu eta lerratu zaitezte behingoz, soilik norabide berean lan eginez irabaziko baitugu gerra hau".

"BILATZEN DUGUN AUZO EREDURA HURBILTZEN"

Bi urte pasa dituzte dinamikaren baitan lanean. Hilabeteko azken ostegunetan elkarretaratzeak egin dituzte, joko aretoen ondorioen inguruko txostena osatu zuten eta negozio horien aurkako lehen manifestazioa egin zuten Euskal Herrian. Auzokideen artean sortutako sareak eta antolakuntza jarri dituzte balioan. "Ez daukagu inolako dudarik auzo botereaz, antolakuntzaz eta borrokaz lortutako garaipena izan dela hau, eta bilatzen dugun auzo eredura hurbiltzen gaitu". Auzoko beharrak asetzera bidean lanean jarraitzeko gogoz agertu dira gazteak. Joko aretoak berriz ere ateak irekitzeko arriskuaren aurrean, halere, beste behin ere erantzuteko prest daudela argi utzi nahi izan dute.

Judimendiko joko aretoaren aurkako borroka izan zen aitzindaria, baina aurreko ikasturtean negozio horien aurkako dinamikak ugaritu egin ziren Euskal Herrian eta gaiak garrantzia hartu du foku mediatikoan. Gazte mugimenduek jopuntuan jarri dute negozio eredu hori. ●

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

35 urteetatik aurrera

ARITZ GALARRAGA

Berripaper serio horietako batek –goiko argazkiko tipo bat sekula publikatuko ez lukeen horietako batek–, artikulu ezin jakingarriagoa kaleratu du, prentsaren zerbitzu publikoa berrestera datorrena: 35 urteetatik aurrera egin beharko ez genituzkeen 23 gauza. Batzuk oso kontuan hartzekoak dira: adibidez, publikoan musuak mingainarekin ematea –eta soinua ateraz, gehituko nuke nik–.

Izan ere, zahartzen ari gara, ezinbestean –eta alternatiba zein den kontuan hartuta, eskerrak–. Eta, hala ere, nerabe izateari utzi nahi ez dioten helduz betetako gizarte batean bizi gara, denok izan nahi dugu *betigazte* –Gilles Lipovetsky filosofo frantziarraren termino bat izan liteke, baina Hondarribiko Alarde matxistako konpainia baten izena ere bada–. Zutabe honek ere zerbitzu publikorako bokazioa duenez, berripaper serio horietako batek kaleratu duen artikulua osatuko dugu, gehituz 35 urteetatik aurrera egin behar ez diren beste hamar gauza, seguru irakurleak eskertuko dituenak.

1. Kalimotxoa edan. Nahiz Remelluriko erreserba batekin nahastu kokakola. 2. Poesia idazten hasi. Orain arte ez baduzu egin, ze nezesidade? 3. Bustidurak ahoskatu, *alegiya*. Eta ez jarri euskalkiaren aitzakia, mesedez. 4. Gatibu entzun. Hau ez dago esplikatu beharrik, ezta? 5. Gaztetxeetara joan. Bueltan harridurazko irribarre ezin ederragoen katalogoa eraman nahi ez baduzu, behintzat. 6. Litxarreriak jan. Aspaldi galdu genituen esnezko hortzak, kariesak orain behin betikoak dira. 7. Kirola egin. Ez kirol asko, edo pixka bat, ez: kirola. 8. Are gutxiago kirol jantziekin ibili –etxean ez duzue ispilurik, edo?–. 9. Hamar ordu baino gutxiago lo egin. Zelulak-eta berritzeko, badakizue. 10. Zutabe hauek irakurri. Horiek, nire uste makalean, 35 urteetatik aurrera egin behar ez diren gauzak. Nahiz ondo pentsatuta, aurretik ere ez egitea litzatekeen komenigarriena. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

"JUSTIZIAK SINESGARRITASUN KRISIA BIZI DU, SALAKETA MAILA IGO BEHAR DUGU"

IMANOL SALINAS, LAB SINDIKATUKO KIDEA

Salinasek bi auzi ditu irekita Nafarroako epaitegietan: Angiovesako lan gatazkaren harira 21 hilabeteko espetxe zigorra ezarri zioten maiatzean eta Huerta de Peraltako greban burututako ekintza batengatik epaiketara deituta dago. "Guk ez dugu esaten beti-beti desobeditu behar denik, lan gatazka guztietan greba egin behar dela esaten ez dugun bezala. Baina epaiketa hauei desobeditzeko baldintzak daude. Tentsio soziala areagotzen denean sistemak errepresioarekin erantzuten du. Hori gelditzeko gakoa erantzun indartsu bat ematea da". **ARGIA.EUS (2019/09/27)**

EKONOMIAREN TALAIAN

Salbatu planeta, gu salbatzeko

JUAN MARI ARREGI

Planeta haserre dago, gure sistema ekonomikoarekin hiltzen ari baikara, gure produzitzeko moduarekin, baita elikadura, energia mota eta garraiatzeko manerekin ere, bizi garen ingurua akitzen ari gara. Klima larrialdi egoeran gaude, baina badirudi ez dakigula. Gizarte -karbonoan bizi gara. Gobernuek eta erakundeek bat egin behar lukete ezagutzen dugun Lurra salbatzeko.

Agian egongo da ez dakienik nola borrokatu Lurraren alde. Bada, Aldaketa Klimatikoaren aurkako 2015eko Pariseko Akordioaren sortzaileak, Costa Ricako Christiana Figueresek, hainbat galdera iradoki ditu.

"Zer jaten dugu?". Behi haragiaren eta deforestazioaren arteko lotura bistakoa da, baina haragi gorria jaten segitzen dugu egunero. Zer ari gara egiten? Ezin dugu basoak suntsiarazten dituzten produktuak kontsumitzen jarraitu etengabe.

"Nola mugitzen gara eta nola bizi?". Gure etxe eta bulegoak, nahikoa isolaturik al daude ahalik eta energia gutxiena gastatzeko? Aurrezki batzuk dituztenek, gutxi izanik ere, jakin behar dute diru hori erregai fosilak erabiltzen dituzten konpainietan jarriz gero Lurra izorratzen ari direla –eta seguruenik diru hori ere galdu egingo dutela–.

Bestalde, herrialde "demokratikoetan" bizi garenok, boto emateak exijitzen duen konpromisoa aintzat hartu beharko genuke eta gainean dugun larrialdiaz kontziente diren liderrak soilik babestu.

Gobernu eta erakundeen erantzukizunetik harago, pertsona bakoitzak bere etxean, lanean zein kalean, elikadura eta kontsumoaren bidez, baita erabiltzen dugun garraioa eta energia aukeratuz ere, ekarpena egin diezaioke borroka honi. Izan ere, Planeta salbatzen badugu, gu salbatuko gara. Etorkizuna kolokan duten gazteek ez lukete itxaron behar ekintzara pasatzeko. ●

ANALISIA

NATHALIE LEES / THE GUARDIAN

Ez da iraila gorroto duguna

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Gehiago edo gutxiago itotzen duten –baina itotzen duten– geure errutinetara berriz egokitzeko ahaleginetan buru-belarri, heldu gara iraila amaierara. Konturatzeke batzuk –hainbeste kexu eta gero nork esango zuen–, eta iraileko aldapa eternala izan denaren irudipenaz beste batzuk; pertsonak bezainbeste egokitzapen prozesu eta errealitate baitaude, errealitate batzuen baldintzetara egokitzea arnasestua eragiteraino itogarria izanik.

Dela desenpleguagatik, kontratu finko etenak epealdi baterako langabezian utzi izanagatik edo pribilegio bilakatzetik gertu dagoen opor eskubidea izateagatik, opor egunez gozatzeko aukera izan duen askok ondoezarekin ordaindu du udako hutsartea ikasketetara, lan-bulegoko ilarara edo lanera bueltatzerakoan. Opor osteko sindromea omen; gaitz kliniko gisa sailkatua ez badago ere, albo-kalte fisiko eta psikikoak eragiten dituena. Irailarenganako herra ezin zitekeen izan berezkoa hainbeste pertsonarengan.

Duela gutxi sailkatutako sindromea ei da, denboran atzera identifikatu gabea, eta horrek pentsarazten dio bati zerikusia izan dezakeela egungo errealitatearekin eta beronen bizi-baldintzekin, hots, neoliberalismoarekin. Gure bizimoduak bizigarri ez direla ohartaraztera datozen gaitz edo ondoeza guztiekin gertatu ohi den bezala, baina, identifikatu zen momentutik indibidualtzat jo zen sindromea. Hala zioen ARGIAren 2.656. zenbakian hiperaktibitateaz psikologo batek: "Neoliberalismoaren ezaugarri bat da. Berak sortzen dituen arazoak arazo indibidual bihurtu nahi ditu garuna hondatuta dugula esanez". Kasu honetan pentsa daiteke garuna hondatua dugula esatea ez dela bideragarri ikusi, hala egiteak bizirauteko ezinbesteko duen lan indarraren galera onartezina suposatuko bailioke makinari.

Estresa eragiten duen egokitzapen arazoa besterik ez dela, errutinara egindakoan joan ohi dela, hala diote sindromeaz diharduten hamaika artikuluek. Baina jakin badakigu muturreko kapitalismoa zein punturaino ari den bizitza bizigaitz bilakatzen, nola den geroz eta zailagoa errutina horietara moldatzea. Panorama beltza argitzera dator Marina Garcés mesanotxean daukadan *Ciutat Princesa* liburuko lerro artetik: "Bizitza eta lanaren arteko tartea geroz eta handiagoa da. Arrakala irekita dago. Izan daiteke infinituki, eguzkitik eguzkira lan egin badugu ere, behin eta berriz egin beharreko bidea. Edo izan daiteke bizitza material eta iraupen duina bermatuko duten beste erantzun batzuk aurkitzeak eskatzen digun distantzia". Hobe genuke, beraz, aparteko orduak lanean ordez erantzun horien bilaketan ematea: asanblada, espazio autogestionatu, kontsumo talde, herri baratze, langile sare, maizter sindikatu… Nondik hasi, bada aukeratzeko. Astelehenekin gertatu bezala, gorroto duguna ez baita asteko egun jakina, ezta kasu honetan urteko hilabete hori; gorroto duguna, nago, kapitalismoa da. ●

DENIS BALIBOUSE

PIZOL GLAZIARRARI AZKEN AGURRA

SUITZA. Itsas mailatik 2.600 metrora dagoen Pizol glaziarra 2030erako oroitzapen hutsa baizik ez da izanen. 1987an bere eremu izoztuak 32 hektarea hartzen bazituen, duela lau urte 10eraino murriztua zen eta gaur 6 hektareatan baino ez du izotza. Klimaren aldeko dozenaka ekintzailek hiletaz omendu dute desagertzear den glaziarra, Suitzako 1.500 glaziar txiki eta handiak nozitzen ari diren extintzioaz ohartarazteko.

KONTROL SOZIALA

75

estatu dira, gutxienez, herritarrak era masiboan monitorizatu, jarraitu eta zelatatzea helburu duen teknologia aurreratua, adimen artifizialean oinarritua, erabiltzen dutenak. Hala ziurtatu du ikerketa batek.

12 kilometrora arteko distantzian pertsonak antzemateko teknologiaz ari gara, besteak beste. Gobernuek helburu polizial eta politikoekin erabiltzen dute, "batzuetan giza eskubideak urratuz".



"Talde terrorista" berri bateko kide izatea egotzi diete CDRetako espetxeratuei

ARGIA

"Equip de Resposta Tactica" (ERT) izeneko ustezko antolakundeko kide izateko "zantzuak" daudela dio epaileak. Abokatuek defentsen babesgabetasuna salatu dute.

FIDANTZARIK GABE ESPETXEAN

Kartzelan sartu dituzten Kataluniako CDRetako zazpi kideek joan den astean dekalaratu zuten Espainiako Auzitegi Nazionalean. Fiskaltzak "talde terroristako kide" izatea egotzi die. "Hondamena sortzeko konspiratzea eta lehergaiak izatea" ere leporatu die. Epaileak zazpiak espetxeratu ditu, behin-behinean eta fidantzarik gabe, aske uztea arriskutsua dela iritzita.

MOBILIZAZIOAK

Mobilizazioak izan dira Herrialde Katalanetan. Espetxeratuak Sabadellen eta inguruko herrietan bizi dira, eta Sabadellen milaka herritar elkartu dira espetxeratuen askatasuna eskatzeko.

MEHATXU PAKETEAK

Bestalde, Espainiako bandera jarrita eta "TNT" hizkiak idatzita zeuzkaten lau pakete agertu ziren joan den astean Òmnium, ANC, CUP eta ERCren egoitzetan. Simulatutako paketeak ziren, lehergailuak bailiran.

TURISTIFIKAZIOA. Turismo masiboari balazta jarri eta Lapurdiko kostaldeko herrietan Airbnb bezalako plataformei mugak jartzeko neurrien inguruko eztabaida abiatu du Euskal Hirigune Elkargoak. Onartuz gero, 2020ko urtarrilaren 1etik aurrera hasiko lirateke neurriak aplikatzen.

ASENSIO. *Irutxuloko Hitzari* erraustegia eta klimaren aurkako borroka bateragarria zela baieztatu zion Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen diputatu Jose Ignacio Asensiok. Ordu gutxira klimaren aldeko manifestazioan agertu zen eta erausketaren aurkako oihu artean hartu zuten.

TASER PISTOLAK. Espainiako poliziak taser arma elektrikoak erabiltzen hasiko dira. Espainiako Barne Ministerioak 1.000 arma elektriko erosi ditu, eta laster hasiko da horiek komisarietan banatzen. Nahiz eta arma "ez hilgarri" gisa sailkatuta dauden, ehunka pertsona hil dira arma honen eraginez.

AFRIKARRAK EZ DATOZ EUROPARA PRESIO DEMOGRAFIKOAGATIK **ENPLEGURIK EZ DAUKATELAKO DATOZ**

Jatorri afrikarreko zenbat biztanle eduki ditzake Europak 2050. urtean? Zerk bultzata abiatzen dira Europarantz Afrikako hainbeste gizon eta emakume? Europaren balizko afrikartzea ez da soilik eskuin politikoak migrazioaren inguruan zabaldutako beldurra, eztabaida akademikoen iturri ere bada: Afrikaren beroaldi demografikoaz gain, jokoan daude garapen ereduak, aberastasunen banaketa, gazteen langabezia itzela... Afrikarrak beste guztiak bezalakoak direla, alegia.

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Stephen Smith kazetari eta irakasleak *Europaranzko korrikaldi handia* liburuarekin sortutako zalapartaren berri eman zuen ARGIAk duela urtebete: *Europarrok nola afrikartuko garen datozen hamarkadetan* kronikan. Geroztik hainbat erreakzio izan da hedabideetan bezala mundu akademikoan eta horietako batzuk laburbildu ditugu hemen.

Smithek bere liburuan dio, bi kontinenteetako demografien dinamikak azterturik, afrikarren Europarako migrazioa gero eta handiagoa izango dela eta saihestu ezinezkoa dela Europako populazioaren afrikartzea.

Funtsean iragarri du Afrikak egingo duela aurretik mundu osoak –Europak, Latino Amerikak, Asiak– egin duena: bere trantsizio demografikoa burutu. Populazio leherketa betean 1930az geroztik, 2050. urterako bikoiztu egingo dela Afrikako biztanleria.

Eztanda demografikoaren ostean barealdia eta gero zahartzea ezagutu dituzten beste ereduak aztertuta, Smithek kalkulatu du Afrika 2050ean hasi litekeela bere herritarren ihesiari eusten, baina bitartean, 2050erako Europako biztanleen %20-25 afrikar jatorrikoa izatera iritsiko dela (2015ean %1,5-%2 zen).

Smithen aurreikuspenak ukatzen lehenengoetakoa izan da François Heran demografo frantsesa. Frantziako Ikerketa Demografikoen Institutu Nazionalaren buletinetik erantzun dio 2050ean Europan afrikar jatorrizkoak ez direla izango herritarren %25 baizik eta %3 edo %4. Heranek ez du zalantzan jarri afrikarren etorkizuneko migrazio handia, baina ziur dago ez dela gertatuko 2050 baino lehen. Hona zergatik.

Wilbur Zelinsky geografoak 1971n erakutsi zuen migratzaileak ez direla izaten herrialde bateko jende pobreenak, gizarte oso txiroak garapen ereduan aurrera egin ahala hasten direla migratzaileak bidaltzen: hilkortasun tasak gutxitzean –nagusiki umeena– populazioa gaztetu eta migrazioak ugaritzen dira. Herrialde horiek aberastasun maila batera iristean ihesak gutxitu eta beste lekuetatik etorkinak hartzen hasten dira.

"Garapenari dagokionez –idatzi du Heranek– herrialdeak 1etik hasita 10era arte sailkatuz gero Saharaz behekoak 1ean daude, Mexiko 6an, Frantzia 9an eta AEB 10ean. Gaur ere 6tik 10erako migrazioak masiboak dira (25 milioi urtean) baina 1etik 9 edo 10era doazenak askoz murritzagoak (2,3 milioi). Nork pentsa dezake Saharaz beheko Afrikako herrialdeek 2050a bitartean *erre* ahal izango dituztela Mexiko harrapatu arteko maila igoera guztiak?".

Le Monde Diplomatique-tik Benoît Bréville historialari eta kazetariak, bere aldetik, ohartarazi nahi izan du garapenak migrazioen aferan dauzkan ondorio kontraesankorrez. Kasu askotan garapen ekonomikoa lortu nahi da ekonomiaren liberalizazioarekin, baina honek ustez arindu behar zuen migrazioa azkenean larriagotu baizik ez du egiten.

Adibide nabarmenena, Mexiko bera da. 1992an AEBekin liberalizazio ituna sinatzean esan zuen Carlos Salinas de Gortari presidenteak: "Aurrerantzean mexikarrek ez dute iparraldera migratu beharko, hemen bertan aurkituko dutelako lana". Jada orduan zenbait ekonomialari kritikok iragarri bezala, justu alderantzizkoa gertatu zen.

2014an Europar Batasunak antzeko ituna sinatu zuen Afrikako 30 herrialderekin, eta horrek berak eragin dezake etorkinen uholdea handitzea, murrizteko partez. Azken finean, migrazioa ez du garapenak eragiten, baizik eta garapenaren onurak berdintasunik gabe banatzeak eta enplegu faltak, batik bat gazteenak.

LANGABEZIARI IHES

Enplegu falta, hori bera nabarmendu du Mo Ibrahim fundazioak plazaratu berri duen ikerlanak: "*Gazteria afrikarra: enplegu faltagatik migratzen?*". Mo Ibramin Afrikako enpresaburu aberatsenetakoa da, kontinenteko telefonian nagusi den Celtel konpainiaren jabea. Bere izena daraman fundazioak Abidjanen (Boli Kosta) bildu ditu kontinenteko lider eta akademikoak, Afrikatik migrazioen afera nola ikusten den islatzeko. Irakurtzekoa da.

2017an 36,3 milioi afrikarrek migratu zuten, munduan mugitu ziren guztien %14,1; askoz gutxiago asiatarrak (%41) eta europarrak (%24) baino. Baina haietatik gehienak Afrikako beste

MAIATZAREN 1EAN
PROTESTA KONGOKO KIVU HERRIAN: "LANAREN NAZIOARTEKO EGUNA ETA LAN BARIK KONGON, A ZER IRONIA" DIO IDATZIAK.

herriren batera doaz, zehazki Saharaz beheko migratzaileen %70 kontinenteko beste nonbaitera doa bizimodu bila.

Migratzaileok gehien bat gazteak dira, ikasketaren baten jabeak, gizonak adina emakumeak. Iritsi diren herrialdean gastatzen dute irabazten dutenaren %85. Sorterriko beren familiei bidaltzen dienarekin osatzen da Afrikaren Barne Produktu Gordinaren (BPG) %3,5: nazioarteak garapenerako laguntzetan ematen diona baino gehiago.

Populazioaren ugaltzean munduko tasa handiena daukaten hamar herrialdetatik bederatzi afrikarrak dira, zehazki Saharaz beheko herrialdeetan ugaltze tasa munduko batez bestekoaren bikoitza da. Aldiz, hazkunde demografikoaren aldean oso atzera geratu da Afrika garapen ekonomikoan. Oraintxe bertan kontinente osoaren BPGa txikiagoa da Britainia Handiarena baino, nahiz eta honek baino hogei aldiz biztanle gehiago eduki.

Afrikarren %60k gaur 25 urte baino gutxiago dauzka. 2100 bitartean gazteen kopurua kasik bikoiztu egingo da, Europan eta Asian urrituko den bitartean eta munduak orduan edukiko dituen gazteen erdiak afrikarrak izanen dira.

Gaur 16 milioi gazte afrikar daude langabezian, proportzioan gehiago hiri handietan. Eta Mo Ibrahim foroan aurkeztutako ikerketa soziologikoek erakutsi dute gazteok lanak kezkatzen ditu nagusiki. Afrikaren azken hamarkadako hazkunde ekonomikoak ez du kasik lanposturik sortu. Saharaz beheko aldean urtean hiru milioi enplegu sortzen da, nahiz eta lan bila hasten diren gazteen beharrak asetzeko beharko liratekeen... 18 milioi!

Nekazaritzak sortzen ditu lanpostuen %60, Afrikaren BPGaren herena ere bai; alabaina, gazteek ez dute laborantzan aritu nahi, jarduera zaharkitua eta gogorra delako, dirurik ematen ez duena. Munduan beste leku askotan ikusi den gisan –etorkinek hainbeste kezkatzen dituzten espainiarrek beren historia hurbila ezagutu beharko lukete– gazteok lan bila edonora joateko irrikaz bizi dira. Datu hau adierazgarri: inkestetan beren herrialdetik kanpo migratu nahi duten gazte guztiek konplituko balute beren asmoa, Sierra Leonak gazteen %78 galduko luke, Liberiak %70 eta Nigeriak %57.

Afrikako populazioaren batez besteko adinaren eta beren agintarienaren arteko leizea 45 urtekoa omen da. Mundu guztian daude zaharrak agintean, baina kontua da Afrikan gazteak indarrean datozela leku eske. ●

Lucía Lijtmaer

ARINEAN SAKON

“SARE SOZIALETAN, HAUSNARTU ORDEZ, ETENGABE POSIZIONATU BEHARRA DAGO”

Lucía Lijtmaerrek patxadaz eta umorez erantzuten ditu galderak. Hala egin zuen *Ofendiditos* liburuaren aurkezpenean, Donostian, San Telmo museoan, eta hala egin du biharamunean Egiako Los Riojanos tabernan. Mugimendu sozialen indarraldiak erantzun erreakzionarioa piztu duela uste du.

DANELE SARRIUGARTE MOCHALES DANI BLANCO

***Ofendiditos: Sobre la criminalización de la protesta* liburua aurkeztera etorri zara Donostiara. Nolatan sortu zitzaizun gaiaz idazteko gogoa?**

Anagramako editore Silvia Sesék nigana jo zuen, eta galdetu zidan ea gairen baten inguruan idatzi nahi nuen. *Nuevos cuadernos Anagrama* bilduman argitaratu dut liburutxoa, eta formatu horrek bidea eman zidan gauza motz bat idazteko, gaurkotasuneko gai baten inguruan. Interesatzen zitzaidan halako zerbait egitea, ez puri-purian dagoen zerbaiten inguruan, baina bai gutxienez gertatzen ari diren gauzez pentsatzea. Hasieran, puritanismoa zen ardatz nagusia. Niri asko interesatu zait, betidanik, Ameriketako Estatu Batuen historia, XVII. mendetik aurrera, nola sortu zen han nazioaren kontzeptua, eta hori estu loturik dago puritanoekin, beraz hortik ekin nion. Gero, baina, ikuspegia zabaldu nuen, eta azkenean beste kontu batzuk ere bildu ditut, hala nola mintzearen gaia eta Espainiako komunikabideen egoera.

Eta nolatan zabaldu zenuen ikuspegia?

Iritzi zutabe eta iritzi artikulu asko irakurri nituen eta ikusi nuen nola ari ziren AEBetako eremu ultra-kontserbadoreetako jarrera eta iritzi-joera asko Espainian inongo galbaherik gabe txertatzen, eta nola ari ziren sartzen, gainera, aurrerakoiagotzat edo behintzat zentrokotzat jotzen ziren esparruetan, erreakzionariotzat jotzen ez diren eremuetan, alegia. Halako batean konturatu nintzen lexikoak lotzen zituela bi hariak.

Hain zuzen ere, hiru kontzepturen genealogia aztertu duzu liburuan: erraz mintzen dena (*ofendiditos*), neopuritanismoa eta zuzentasun politikoa. Noiz sortu ziren, zein testuingurutan?

Zuzentasun politikoa terminoa 90eko hamarkadan sortu zen, prentsan idatzitako artikulu batetik. Kazetari bat Berkeley unibertsitatera joan zen, han egin baitzituen ikasketak, eta konturatu zen bere garaiaz geroztik giroa aldatua zela, eta ordura arte unibertsitatetik kanpo egondako gaiak lantzen ari zirela ikasleak, hala nola ekologia, birziklapena, arrazializazioa eta abar. Kazetariak artikulu batean azaldu zuen hori guztia eta PC deitu zion: *Political Correctness*. Horri tiraka, hamaika artikulu argitaratu ziren, eta zuzentasun politikoa zentsurarekin lotu zuten.

Lucía Lijtmaer

BUENOS AIRES, ARGENTINA, 1977

Bartzelonan hazi zen eta Madrilen bizi da. Idazlea eta kultur kritikaria. Lau liburu argitaratu ditu: *Quiero los secretos del Pentágono y los quiero ahora* (Capitán Swing, 2015) *Casi nada que ponerte* (Libros del Lince, 2016), *Yo también soy una chica lista* (Destino, 2017) eta *Los ofendiditos* (Anagrama, 2019). Horrez gainera, Público TVen *Deforme Semanal* programa aurkezten du Isa Calderónekin batera, eta azken bost urteetan *Princesas y Darthvaders* umore jaialdia antolatu du Madrilgo La Casa Encendida gunean.

Artikulugile horiek denak lotuta zeuden fundazio neoliberalekin; *Dinero oscuro* liburuan bikain kontatzen da prozesu hori [*Dark money*, Jane Mayer], nola sortu zen sistema ideologiko oso bat, pentsamendu-sistema oso bat, ezker intelektualari kontra egiteko. Zuzentasun politikoa da horretarako baliatu zen kontzeptuetako bat. Neopuritanismoa ere berdin, 80ko hamarkadan hasi ziren hura erabiltzen, mugimendu feministako zenbait sektoreren aurka, bigarren eta hirugarren olatuen kontra, eta gaur egun inongo hausnarketarik gabe hartu dira bi kontzeptuak Espainian.

Eta erraz mintzen denaren kontu hori?

AEBetatik dator hori ere. *Snowflake* terminoaren kalko bat da. 90eko hamarkadan sortu zen, baina orain Trump jabetu da hartaz. Kontzeptu horren jatorria zera da: badela belaunaldi bat sinesten duena pertsona guztiak direla bereziak eta bakarrak, elur malutak bezalaxe. Gaur egun, Trumpek denetarako erabiltzen du, demokratak, ezkerrekoak, eta, egiaz, haren kontra dauden guztiak kritikatzeko.

Nolakoa da erraz mintzen dena?

Pantomima Full taldeak egindako esketx batean oinarritu naiz, ederki islatzen baitu figura horri buruz gailentzen diren klixeak: sarean baino ez du protestatzen, kalean inoiz ez; mintzen duen guztiari buruz kexatzen da, eta ez daukanez umorerik, denarekin mintzen da. Bestalde, maskulinitate berriekin lotuta dago, baina pose hutsa da, ondo geratzeko baino ez du egiten, ez benetako hausnarketarik egin duelako bere genero pribilegioen inguruan.

Jatorriz AEBetan sortutako kontzeptuak Espainiako iritzi zutabeetan barra-barra hedatu direla diozu, zergatik orain?

Nire iritzia emango dizut. Uste dut M-15 mugimenduaren eta gizarte mugimendu berrien aurkako erreakzioa dela, eta politikara iritsi baino lehen iritzigintzan garatu dela. Feminismoen aurkako erreakzioa ere bada. Badago halako mezu bat: "Bai, gauza hauek guztiak oso ondo daude, baina ez gaitezen pasa". Nire ustez, pribilegio-espazio bati eustea da halako erreakzioen helburua, eta esango nuke 2017 eta 2018 urteen artean mamitu dela, hain justu ere urte horietan emakumeak masan eta nahiko modu ikusgarrian atera direlako kalera, eta mugimendu feministak sarean antolatzen hasi direlako, mugimenduen egiturak eurak gaindituz, eta horrek guztiak erantzun bat sortu du.

Hel diezaiogun orain puritanismoari. Jokaera sexualarekin lotzen da batez ere kontzeptu hori, baina jatorrizko puritanoak ez omen ziren hain itxiak alderdi horretan, ezta?

Bai, horren berri izan nuenean txundituta geratu nintzen eta horregatik sartu nuen liburuan. Puritanoen harira, gure garaira iritsi da nolabaiteko moral sexual zorrotz bat, baina egiaz, puritanoen kolonia berrietan, gerora New Hampshire edo Connecticut bihurtu diren horietan, sexuari loturiko gozamena asko baloratzen zen. Irizpide batzuk gorde behar ziren, jakina –fideltasuna, ezkondu arte sexurik ez izatea eta abar–, baina sexua bera ez zegoen hain lotuta erruduntasunarekin, ez behintzat erlijio katolikoan bezainbeste. Adibidez, kolonia puritanoetako bizimodu egokiari buruzko idatzietan aipatzen da ezkontideek sarri eduki behar dituztela sexu-harremanak, bizimodu on bat izateko baldintza bezala.

> ***"Izugarria iruditzen zait kide emakume batek txio bat ipintzen duenean, nolako gauzak esaten dizkioten. Oso gizarte gaixo eta izugarri misoginoaren seinale da hori guztia"***

Gaur egun feministen aurka erabiltzen da puritano hertsiaren kontzeptu hori, ezta?

Bai, zentsuratzailetzat jotzen duten eta ustez besteren bizitza pribatua arautu nahian dabilen feminismo baten aurka erabiltzen da. Gaur egun, prentsan eta komunikabideetan, artikulugile multzo batek kontzeptu horri heldu dio, eta puritano deitzen die hainbat feministari. Iritzigile horiek iradokitzen dutenaren arabera, badirudi badagoela emakume masa handi bat eremu publikoko eta pribatuko morala ezartzen. Ez da hala, jakina, baina uste dut irudi hori tinko sortu dela, eztabaida guztietan ateratzen dela eta suntsiezina dirudi. Halako alerta orokor bat sortu da, badela puritanismo feminista bat. Guztiz interesatua iruditzen zait, eta ez da batere errealista.

Zer egin daiteke irudi horri kontra egiteko?
Erantzuteko espazioak behar dira, jakina, eta jendea informatu behar da. Oso zurrunbilo konplikatua da, eta nire ustez sare sozialek zerikusi handia dute. Sare sozialetan etengabe ari zara edukia sartzen, zure buruari buruzko formularioak betetzen. Egunero-egunero adierazten dugu zer pentsatzen dugun gauza bakoitzari buruz. Hausnartu ordez, etengabe posizionatu beharra dago, eta hori ez da batere interesgarria. Ez dago tokirik argudio edo arrazoiketa solidoagoak egiteko. Ni saiatzen naiz, ahal dudan heinean, halakoei ihes egiten, ez baitut uste inori onik egiten diotenik.

Usteen beste aldean, datuak daude. Liburuan labur-laburrean aipatu duzu *Pikara Magazine* hedabideko kideek eta Laia Serra abokatuak egindako ikerketa, non aztertzen dituzten eremu publikoan ari diren emakume kazetariek jasotzen dituzten irainak eta jazarpena. Zeuk baduzu alderdi publikoa, nola bizi izan dituzu halakoak?
Denok izan ditugu arazoak. Nik ez dut arazo asko izan, ez dakit zergatik zehazki, baina esango nuke alde handia dagoela telebistan agertu ala ez. Ni ez naiz telebistan agertzen, beraz ez dut halako jazarpenik bizi izan. Arazoak izan ditut momentu jakin batzuetan, artikulu konkretu batzuen h arira, eta oso desatsegina da. Elkarrizketetan feminismoari buruz hitz egiten dudan aldiro bostehun komentario uzten dizkidate, baina ez ditut irakurtzen, nire burua babesten dut, ez baitut minik hartzeko inongo interesik. Nire adiskide askok jasan dute halako jazarpena, eta ezinezkoa da horrek psikologikoki ez eragitea. Uste dut gizartearen ardura dela emakumeek halakorik pairatu behar ez izatea. Komunikabideetan idazten duten edo jendaurrean hitz egiten duten gizonei halakorik suertatuko balitzaie, ezingo lukete sinetsi. Niri izugarria iruditzen zait, kide emakume batek txio bat ipintzen duenean, nolako gauzak esaten dizkioten: pistolen argazkiak erakusten dizkiete, beren seme-alabak aipatzen... Oso gizarte gaixo eta izugarri misoginoaren seinale da hori guztia, eta jendea lotsarazi behar luke.

Mirestekoa da, hala eta guztiz ere, emakumeek idazten jarraitzea.
Bai, benetan. Berriro diot, nik uste dut halakoek eragina dutela, eta sarritan, ezer idatzi edo esan aurretik, baldin badakizu

Azken hitza
SALBUESPENA LEGE

"Azkenaldian nagusitu diren iritzi korronteetan, anekdota bat hartzen da, eta osotasun gisa eta gauza orokor moduan aurkezten. Aktibista beganoen bideoarekin [Almas veganas taldeak oilo-etxalde handietako tratu txarrak salatu dituzte] horixe gertatu dela iruditzen zait. Kasu guztiz anekdotikoa hartu dute, eta aitzakia gisa erabiliz, teoria edo mugimendu oso bat kritikatzen dute, informatu gabe edo informazio interesatua emanez, gainera. Eta hainbat gairekin egiten dute hori: feminismoarekin, bestelako identitateekin...".

esango duzun horrek erantzuna edo eztabaida sortuko duela, kontu psikologikoak azaleratzen dira: antsietatea, beldurra… Oso ausarta iruditzen zait kideek nola jartzen duten egunero gorputza eta aurpegia.

Gaiz beste egingo dugu. Laugarren liburua duzu hauxe, eta arreta eman dit oso gai ezberdinak garatu dituzula guztietan.
Liburuak ezberdinak dira, bai, baina badute gauza bat antzekoa: ahotsa. Nolabait ere lehen pertsonan idatzita daude denak. Lehenengoa, Pentagonoko sekretuei buruzko saiakera [*Quiero los secretos del Pentágono y los quiero ahora,* (Pentagonoko sekretuak nahi ditut, eta orain)] adibidez, *Deep Web* [Internet Ezkutua] delakoari buruzko kronika laburra da. Komunikabideak oso modu fetitxistan mintzatzen dira internetekin zerikusia duen guztiaz –dena da surfeatzea, sarea…–, eta baziren online aktibismoko kasu batzuk bereziki interesatzen zitzaizkidanak. Liburuan hori jorratu nuen batez ere.

Bigarrena, *Casi nada que ponerte* (janzteko ia ezer ere ez) lotuago dago zure historiarekin, ezta?
Liburu hori luzaroan landu nuen. Alde batetik, Argentinako bi gizonen historia da, modaren munduan zebiltzanak: 60ko hamarkadan abiatzen da historia, eta *Corralito*-aren garaian amaitzen. Nik ezagutu nituen, eta historia bera asko interesatzen zitzaidan. Erreportaje erara landu nezakeen gaia, hirugarren pertsonan, baina gero konturatu nintzen, nik haiek ezagutzen nituenez, ezinezkoa zela kanpotik lantzea, eta gainera historia horrek zerikusia du nire gurasoen emigrazioarekin.

Gurasoak erbesteratuak dira.
Bai, ni Argentinan jaio nintzen, baina jaio eta sei hilabetera joan ginen Bartzelonara, diktadura militarretik ihesi. Asko interesatzen zait erbestearen eta migrazioaren kontua, zer dakarren beste herrialde batean bizi eta hazteak, nolako ahozko kontakizunak sortzen diren, familiari berari zer gertatzen zaion, zer -nolako familiarekin hazten zaren, adiskideak nola bilakatzen diren senide…

***Yo también soy una chica lista* (ni ere neska argia naiz) argitaratu zenuen gero, zuzenean feminismoa lantzen duen liburua.**
Bai, saiakera pop bat da, umoretik egina, batetik feminismoa hurbilarazteko eta bestetik pop kulturan hori guztia nola islatzen den aztertzeko, asko interesatzen baitzait. *Cheerleader*-ak, *influencer*-ak… hori guztia arakatu nahi nuen. Marc Giró lagunak esaten duen moduan, nahi nuke Instagrameko *influencer*-ek hogei urte barru bertan jarraitzea, eta ikustea zer gertatu zaien, nola aldatu diren –ala ez–. Gai interesgarria da hori, zer gertatzen den lengoaia eta posizio horiekin.

Arintasuna aldarri?
Badirudi gauza grabeak baino ez direla garrantzitsuak. Liburuetik kanpo joanda, adibidez, baloratzen diren aktoreak beti dira aktore dramatikoak, arte dramatikoa da benetan garrantzitsua, baina badira komedia egiten duten antzezle izugarri onak, eta badirudi bigarren mailako artea dela. Uste dut sailkapen horiek hautsi behar ditugula. Tonua grabea ez izateak ez du esan nahi esaten diren gauzak interesgarriak ez direnik. Eta umorearekin berdin: badirudi gauzak umorez esanez gero, esandakoaren garrantzia menosten dela, baina maiz, umorea arma da, ez dagozkizun espazioetan sartu ahal izateko arma. Oso tresna garrantzitsua iruditzen zait, ez dugu bazterrean utzi behar. ●



Globalizazioa, jomugan?

ENDIKA ALABORT AMUNDARAIN
EKONOMIALARIA

Gaurko kapitalismoak duen errentagarritasun maila ez da Urrezko Garaiaren parekoa, nahiz eta hainbat saiakera izan diren hala izan dadin. Fordismo eta politika keynesiarren emaitzak ahitzen joan zirenean, neoliberalen proposamenak errentagarritasuna berreskuratzeko merkatuen "liberalizazioak", ondasun eta enpresa publikoen "pribatizazioak", arauen erregulazio berria (desaraupena izendatutakoa) izan ziren. Paperean funtzionatzen zuenak –*trickle-down economics* edo jario efektua, adibidez– ez zuen balio izan kapitalak behar zuen errentagarritasun maila berreskuratzeko, dopin dosi bat izan zen. Atzeraldi Handia horren adibidea da, kapitalismoa epe luzeko ziklo beherakor batean sartu da.

Tarte horretan globalizazioak hartutako abiadura izugarria izan da. XVI. mendean hasitako prozesua, teknologia berrikuntzekin batera azkartu zen; XX. mendeko azken hamarkadatan informazio eta komunikazio teknologien hedapena horren adibide dira, energia iturri berriztaezinen laguntzarekin batera, petrolio merkea. Garai bakoitzak beren herrialde hegemonikoa izan du, beren gorakada eta beherakadekin. Gaur egun, agerikoa da herrialde hegemonikoa (AEB) bere rola galtzen ari dela, zendu berri den Immanuel Wallersteinek esan zuen bezala. Ez dirudi beste herrialde hegemonikorik agertuko denik hurrengo urteetan, dirudienez kontrako joeran gaude.

> Nazioarteko ekonomia egoera ezegonkorra, kapitalismoaren errentagarritasun joera beherakorra, eta krisi ekonomiko berri bat eta larrialdi klimatikoa gainean ditugu

Garaiak alderatuz, askotan 1873-1896 urteetako Atzeraldi Handia burura datorkit: herrialde hegemonikoa Erresuma Batua zen, baina lehiakide handiak zituen, AEBak eta Alemania. Atzeraldi hartan, estatuek protekzionismo ekonomikoa aplikatu zuten. Sarritan aipatu den beste epe historikoa 1930 hamarkadako Beheraldi Handia da: neurri protekzionistak ere orokortu ziren. Bi garai horien atzean Lehenengo eta Bigarren Mundu Gerra etorri ziren; eta bigarrenean –aurreko Depresio Handia barne– lehenengoaren ostean hartutako erabakiek eragin zuzena izan zuten, Keynesek *Bakearen Ondorio Ekonomikoak* lanean antzeman zuen bezala.

Hala ere, gaur egungo ekonomien arteko harremanak oso estuak dira: lehen gure lurraldean ekoizten zena, orain munduko beste txoko batean egiten da; maiz, ekoizpen katearen parte txiki bat lurralde zehatz batean erroturik dago, ekoizpen prozesua munduan zehar sakabanatzen den bitartean. Ekonomiaren aldetik, orduan, merkataritza gerren eta protekzionismoaren itzulera neurtzea zaila egiten da. Eztabaidan jartzen ari dena da gaur egunean indarrean dagoen globalizazio eredua, eta borroka honetan galtzaile diren eliteek, honen elementu garrantzitsuak jomugan jartzen dituzte. Ziurgabetasuna da testuinguru ekonomikoaren ezaugarri nagusiena.

Nazioarteko ekonomiaren egoera ezegonkorra –gatazkak barne–, kapitalismoaren errentagarritasun joera beherakorra, krisi ekonomiko berri bat eta larrialdi klimatikoa gainean ditugu. Munduko eliteak globalizazioa birpentsatzen ari dira, euren onurarako, ez langileen onurarako, noski. Aldaketa horiek zer-nolako eragina izango dute gure lurraldeko ehun ekonomikoan? Neurtzen zaila, baina hasteko, ez da ona izango. Administrazioek ez dute asko ikasi, Atzeraldi Handiek ziurrenik prestatu gabe harrapatuko ditu.

Baina ez dut ilun agertu nahi. Globalizazioan subiranotasun ekonomikoa azukre-koskor bat bezala desegin zen –inoiz existitu bazen–; azken hau kolokan jartzen den bitartean, beste bide batzuk eraikitzeko zirrikituak agertu daitezke. Hori baita ziurgabetasunaren alde ona, arrakalak agertzeko aukera. ●

Abolizioa

JUNE FERNÁNDEZ
KAZETARIA

Bilboko Aste Nagusian C. Tanganaren kontzertua bertan behera uztearen erabakia izan zen udako polemika feministaren biziena. Oporretatik bueltan, beste ekitaldi baten kontrako boikota izan dugu eztabaidagai sare sozialetan: A Coruñako Unibertsitatean sexu langileen elkarteek antolatutako jardunaldi batzuk, alegia. Prostituzioaren abolizioaren aldeko sektoreen ustez, halako kongresu bat ospatzeak sexu esplotazioaren legitimazioa dakar. *#UniversidadSinProstitución* traola erabili dute, Errektoretzak presioen aurrean amore eman duen arte. Erabaki horrek ehundaka irakaslek sinatutako manifestu baten erantzuna jaso du, *#UniversidadSinCensura* traolarekin.

Prostituzioa izan da historikoki mugimendu feministaren gehien polarizatu duen gaia. Egun, sare sozialen dinamikek polarizazio hori are gehiago elikatzen eta ikusgai egiten ari dira. Txio batean ez dago ñabardura handiarekin debatitzeko aukerarik. 280 karaktere badira nahikoa, ordea, pentsaera bakarra inposatzeko. Abolizionista zaratatsuenek George W. Bushen erretorika berdintsua erabiltzen ari dira sareetan: "Nire alboan ez dagoena terrorista da" esaldian, aldatu "terrorista" eta jarri "emakumeen salerosketaren defendatzailea".

Haurdunaldi subrogatuen gaiari ere aplikatu diote eskema hori, errealitate berri eta zeharo konplexu baten inguruko eztabaida pobretuz. Zalantzaren bat adierazten badugu edota bestelako iritziak entzuteko beharra, emakumeen merkantilizazioaren alde egitea leporatuko digute.

Bitartean, bestelako abolizionismoek ez dute horren besteko oihartzunik. Angela Davisek borrokatzen duen abolizionismoa –kartzelarena, alegia– dut gogoan. Bere esanetan, genero indarkeriari irtenbidea emateko, ulertu behar dugu estatu indarkeriarekin duen lotura. Davisek ezin hobeto azaltzen du kartzelak sexu, arraza eta klase zapalkuntzetan oinarritutako instituzio patriarkalak direla.

ANTTON OLARIAGA

Sexu salerosketa esklabutza mota bat da, duda barik. Baina badago are normalizatuagoa eta onartua dagoen esklabutza garaikide mota bat: barne etxeko-langileen erregimena. Zergatik ez da agertu erregimen honen abolizioaren aldeko plataforma feministarik? Seguru asko, aldarri horrek gure egunerokoan deserosotasun eta gatazka handia eragingo zuelako. Nola izango naiz koherente, baldin eta nire familiak aitite zaintzeko barne zaintzaile bat kontratatu badu?

Duela urte batzuk, ospe handiko filosofo feministaren hitzaldia entzun nuen. Oso ondo azaldu zuen prostituzioa instituzio patriarkal eta kapitalista bat dela eta gizonen heziketa matxistan pisu sinboliko itzela duela. Bere hitzaldia txalotu nuen, baina galdetu nion ea ez legokeen ondo beste arlotan ere emakumeen giza eskubideen urraketa bortitzak horren sutsuki salatzea. Andaluzian marrubiak biltzen dituzten Marokoko langileen esplotazioa –sexu jazarpena barne– aipatu nion. Emakume txuri pribilegiatu horren erantzuna hauxe izan zen: "Ezin duzu alderatu landan marrubitxoak biltzea zakilak jatearekin, neska!".

Feminista txuri eta pribilegiatuok sare sozialetan gure desadostasunak muturrera eramaten dihardugun bitartean, prostitutek, emakume presoek, etxe barneko langileek eta marrubi soroetako langileek bizi dituzten sexu/arraza/klase indarkerien aurka antolatzen jarraitzen dute. Horietako batzuk bakarrik bihurtu ditugu gure eztabaida antzuen objektu, baina guztiak dira beren borroken protagonistak. ●

G7a eta gero

JAKES BORTAIRU

G7 pasatu ondoren, zer gelditzen da? Komunikazio operazio ona Macronentzat, baina diplomatikoki emaitza konkretu eskasak. Haatik, Euskal Herriarentzat gertakari adierazgarria izan da: estatuaren jokaera alde batetik eta parean eragile sozio-politikoek eman dugun erantzuna.

Aitortu behar, parte handi batez, estatuko arduradunek lortu dutela helburu zuten hiru maila kontrolatzea: espirituak, espazioa eta G7aren kontrakoen ekimena. Espirituen kontrolerako diskurtso borobildua zabaldu dute, G7aren legitimitatea eta eraginkortasuna azpimarratuz, Miarritze, Euskal Herria eta Akitania osoarentzat G7ak ekarriko zituen onurak eta fama ahantzi gabe. Baina taktika maltzurragoak ere erabili dituzte. Hedabide batzuen bitartez beldurra eta paranoia hedatzeko mezua hedatu dute astez aste, estatuak indarrean jarri duen polizia dispositibo itogarria justifikatu nahian. Hain zuzen, neurriz kanpoak izan dira espazioaren erabateko kontrola lortzeko erabilitako medioak. Horretan hainbat auzapezen laguntza lotsagarriarekin kontatu ahal izan dute: komertzioak hetsiak, merkatu, kirol eta kultur gertakizunak ezeztatuak, hots BAB osoa "hiri hilak" ziren gailur denboran, karriketan ibiltzen ausartzen ziren jende oro susmagarri bilakatuz. Azken hilabeteetako polizia bortizkeriak ereindako beldurrak ere mobilizazioa murrizteko eragin nabarmena izan du.

G7aren kontrako ekimenen kontrolerako taktikak ere ugari izan dira. Lehena, antagonismoa ukatu eta aurkarien kritikaren potentzialtasun subertsiboa indargabetu. Prefetak etengabe errepikatu zuen: "Demokrazian bizi gara eta G7aren arrakasta kontra-gailurraren arrakastarekin bat dator". Bestalde, estatuaren partetik debekuak eta "laguntzak" txanpon bereko alderdiak ziren: plataformako kideak arazo teknikoetan ito, antolaketa berandutu eta ondorioz jendea mobilizatzeko komunikazioa trabatu. Azkenik mehatxu eta poliziaren presioa, kontra-gailurreko antolatzaileak paretaren kontra atxikitzeko.

Behar zen erantzuna eman ote dugu? Baietz diote batzuek, argudiatuz erantzun irmoago batek kontrolik gabeko istiluak eta arazo politikoak sor zitzakeela, baina G7 EZ! plataformako eragile frankok ez dute horrela ikusten. Aukera galdua aipatzen dute, ez baita saiatu ere buru egiten inposatutako egoera antidemokratikoari. Ez da lehen aldia indar emantzipatzaileek bataila bat galtzen dutela. Berez ez da hain grabea baldin eta hausnarketarako aukera ematen badu eta geroari buruzko irakaspenak barneratzen badira. ●

Deception row

ITXARO BORDA
IDAZLEA

Macron pozik atera zen Miarritzetik, halaber Oteiza, Kintoko enpresaria, urdaiazpikoa Trumpi opariturik. Baina G7aren kontrako gailurrak dezepzioa piztu zuen iraultzaileen oldeetan. Batzuk etorriak ziren pataskatzeko, hiriak sutan uzteko deklaratuak ez ziren manifestaldien karietara, horiz jantzirik edo ikurrinak eskuetan "indar errepresiboak" desafiatuz. Ez zituen polizia dispositibo izugarriak durduzatu, baizik eta ezkertiarren, abertzaleen eta jaka-zaleen arteko jasanezinak, azkenok abertzaleei, debadioen kontrola eta manifestaldien pazifismo kolaborazionista leporatzen dietela oraindik ere sare sozialetan!

Urruñako uda-lekuko espazioa partekatzeak arazoak sortu zituen. *Gilets jaunes*, feministen eta alternatiboen artean adibidez, leize bat bazegoela ohartzeko balio izan zuen. Eta alderantziz, *black blocs* delakoak etorri ezean, horiz jantziek abertzaleen borrokalari senarekin konta zuketen. Baina abertzaleen interesak ez dira gehiago horretan: aspaldiko partez, turismo kapitalistaren oinarrian eraiki Ipar Euskal Herriko ekonomia defendatu eta zaindu zuten; halatan, frustrazio puntuak metatu ziren, lau egunez...

C'est la vie? ●

Agur

ANDONI MUJIKA ULAZIA
IRAKASLEA

Agur esan nahi dut txukun samar, eta ez dakit ondo nola egin.

Tira. Duela hamasei urte, Letonak egin zidan gonbita ARGIAn idazteko. Izugarrizko poza eragin zidan, ze une hartan, autoestimua ez neukan oso sendo. Izan ere, garai latzak bizi izan genituen ikastoletan aurreko sei urtetan zehar, eta gertakari haiek, nire orbanak zabaldu egin zituzten. Eta egoera hartan, eskaintza hura sinestea ere kostatu egin zitzaidan, eta horrela galdetu nion:

– Hi, Xabier, ziur al hago?

Berak, ez dut gogoan zehatz-mehatz zein hitzekin, horrelako zerbait erantzun zidan:

– Proposatzen badiat zer edo zerengatik izango duk.

Harrezkero, ARGIAren ispilu honetan ibili naiz erakusten nire barruan egon diren kezkak eta ikuskerak. Eta gaurko artikulua osatzeko gida ere hortxe bilatu dezakedala pentsatu dut, urtetan jorratu ditudan eremuetan. Horretarako, erakusleiho honetara ekarri ditudan gaiak erreskatatzen ibili naiz azken egunotan. Eta emaitza da jakin-min arloak ez direla hainbeste izan. Hemen sintesia:

ARGIA-ren ispilu honetan ibili naiz erakusten nire barruan egon diren kezkak eta ikuskerak. Eta gaurko artikulua osatzeko gida ere hortxe bilatu dezakedala pentsatu dut, urtetan jorratu ditudan eremuetan

Autoeraketa. Garden ikusten da, alez-ale, pentsamendu hori dela nire konstante nagusiena, beste hainbat gairen kokapen eta azalpen lekua. Beraren baitan, eta berari esker ulertu izan dut, besteak beste, pertsona eta komunitateen garapena, gizarte eraldaketa, egiazko ahalduntzea, errealitatea eta utopia konbinatzeko aukera eta, baita, demokraziaren espresiorik gorena ere.

Kooperatibismoa eta garapenerako lankidetza. Artikuluen joan-etorrian nabaria da bi gai hauek ere miresmena eta interes izugarria piztu izan didatela, batez ere, nire lehen urteetan. Azken boladan, ordea, errespetua eta errekonozimendua bai, baina batzuenganako dezepzioa ere ikusten da.

Ikastolak. Askotan nabarmentzen da idatzietan ikastolen esperientzia. Batez ere esateko, herrigintza eta autoeraketaren eremuan, herri honek daukan praktikarik erakusgarriena dela. Gorabeherak gorabehera, gizartean txertatuta eta berarekin igurtzian dagoen errealitatea da ikastolena.

Abertzaletasuna. Politika orokorrarekiko nire interesa ere angelu horretatik eratorritakoa dela ikusten da. Horren atzean, nagusiki, sentimendu bat eta desio bat eduki izan ditut: Espainiarekin eta Frantziarekin berdinetik berdinera harremanak izateko nahi garbia eta askatasun egarria.

Erronka pertsonalak eta barne garapena. Tarteka, bikotea, maitasuna, gorabehera pertsonalak eta sentimenduei ere tokitxo bat egin diet.

Besterik ez, eskerrik asko Asurmendiren zaintzari eta irakurleei. ●

JORDI CUIXART
Omnium Culturaleko lehendakaria

"Ez daukagu hamar urtetik beherako zigorrik ez espero izateko motiborik"

Liburu bat hautatu behar badu, Frédéric Grosen *Désobéir (Desobeditu)* aukeratzen du. Orain abestiren batean pentsatzen duenean, Txarangoren *Esperança (Itxaropena)* datorkio burura. Irailaren 11 dela eta, Pablo Larraínen *No* filmaz gogoratzen dela dio, Txileko 1988ko plebiszituari buruzkoa. Marina Garcések pentsatzen laguntzen dio eta, olerkiei dagokienez, Joan Maragallen *Elogi de viure (Bizitzearen gorazarrea)* dauka iltzatuta. Ezer ez da alferrik, behin-behineko atxiloaldian ia bi urte daramatzan Jordi Cuixartentzat (Santa Perpètua de Mogoda, 1975).

TESTUA I **GEMMA GARCIA FABREGA / LA DIRECTA**
ITZULPENA I **MARIA COLERA**
ILUSTRAZIOA I **FELIPE DE SAN PEDRO**



Kontsigna argi bat iristen zaigu haren hitzetatik: espetxeak ezin duela borrokarako inolako muga izan eta, horrenbestez, preso dagoenetik ez du denborarik galdu, irabazi baizik. *Ho tornarem a fer* (Berriro egingo dugu) idazteaz eta Iñaki Riverarekin eta Sirecovi proiektuarekin batera espetxe-urruntzeari buruzko liburu bat editatzeaz gain, orain beste liburu bat prestatzen ari da presoek beren seme-alaben jaiotzan parte-hartze aktiboa izateko eskubideari buruz. Irailaren 23an aita izan da berriro. Òmnium Cultural-eko presidentearentzako galderak abuztuko azken ostiralean abiatu ziren Lledonersko espetxe aldera, eta erantzunak Irailaren 11ren biharamunean iritsi ziren erredakziora. Hemen duzuna elkarrizketa horren laburpen zabala da.

Urriaren 16an bi urte beteko dituzu behin-behineko atxiloaldian, Jordi Sánchezekin batera. Zer sentitzen duzu denbora aurrera doala ikusita eta nola kudeatzen duzu egoera?

Sentipen kontrajarriak dauzkat. Asteak ziztu bizian doaz, baina dei bat egiten duzun bakoitzean NISa (presoaren identifikazio-zenbakia) markatu behar duzu: lehen lau zenbakiak espetxeratze-urteari dagozkio (2017), eta dagoeneko 2019 amaieran gaude. Denbora gehiegi, ezeri uko egiten hasteko. Segitzen dut pentsatzen espetxea bozgorailu ezinhobea dela. Funtsezkoa da errutinei eustea: meditazioa, telebista gutxi, fruta, ziega barruko ordutegiak, etxekoak ahal duzun ongien zaindu, moduluko kideekin erlazionatu, zeramika, idatzi eta irakurri...

Itxaropen-uneak eta etsipenekoak edo une konplikatuak biziko zenituen, ezta? Zein izan dira?
Itxaropen-uneak asko, baina oinak lurrean beti eta ilusio faltsurik sortu gabe. Alegia, hemen luzerako nagoela jakinda, baina eguneroko garaipen txikien garrantziaz ere jabetuta. Posizionamenduak, mobilizazioak, gutunak, aurrez aurrekoak, edo jaiotzear den semearen etorrera orain. Halako uneek indarberritu egiten zaituzte eta hemen barruan egonda, bizipoz are handiagoa ematen dizute. Etsipen-uneak urrunean gogoratzen ditut. Lehen hilabeteko beldurrak, beharbada, espetxea helburu politikoak lortzeko borroka-tresna ere badela barneratu nuen arte, hain zuzen.

Presoak ezagutu dituzu bai Soto del Realen, bai Lledonersen. Zer irakatsi dizute?
Duintasunaren aldeko borroka era desberdin askotara aurkezten dela eta jendea aurretik juzgatzea dagoenik eta akatsik okerrenetakoa dela. Hemen barruan, tonaka gizatasun dago eta elkartasun-ekintzak ikusten dituzu egunero. Uste dut espetxeak betiko aldatzen zaituela eta, Pussy Riot-eko Nadiak dioen bezala, ez da munduko lekurik txarrena bere kabuz pentsatzera ausartzen denarentzat. Askotan gogoratzen naiz bi urte hauetan ezagutu ditudan kideekin eta zer patu izan ote duten galdetzen diot neure buruari.

Bildu duzun esperientziarekin, uste duzu espetxeak balio duela presoak birgizarteratzeko?
Sinetsita nago badirela jendea birgizarteratzeko espetxea baino askoz eraginkorrak diren sistemak eta eztabaida hau ezin dugu alde batera utzi. Hemen barruan gizarteko sektore pobreenetako jendea aurkitzen duzu nagusiki, eta bizitzen ari garen basakeria handienen (klima-larrialdia, errefuxiatuen heriotza Mediterraneoan edo armen salmenta) benetako erantzuleak, berriz, aske daude. Espetxeak suntsitzearen aldekoa naiz, hona sartu aurretik ere. Nire kideetako asko eta asko biktimak dira errudunak baino gehiago. Agerikoa denetik haratago begiratzen duzunean ikusten duzu zorte ona edo txarra kale batean gorago edo beherago edo kilometro batzuk haratago jaiotzearekin daukala zerikusia. Era berean, lan itzela egiten duten profesional bikainak ere ezagutu ditut hemen.

Espainiako Auzitegi Gorenak aurki emango du epaia. Ba al dago datorrena bezalako epai baterako prest egoterik?
Bidezkoa den epai bakarra absoluzioa da. Eta bai, uste dut denbora nahikoa izan dugula. Zigorrak eraldaketa demokratikorako palanka gisa erabiliko ditugu. Bi urte behin-behineko atxiloaldian egon eta gero, eta azken urteotako gertakariak ikusita, ez daukagu hamar urtetik beherako zigorrik ez espero izateko motiborik. Gudu juridikoan, Kataluniaren eta Estatuaren arteko erlazio historikoak irabazle garbia izan du beti, edo ia beti: fiskaltza. Besterik da epaiez egingo dugun erabilera moral eta politikoa eta, ildo horretan, sinetsita nago zama astunagoa izango dela haientzat guretzat baino. Bartzelonan oinarrizko eskubideen eta disidentzia politikorako eskubideak gauzatzea zigortzen dutenean Madrilen, Segovian eta Sevillan ere ari dira zigortzen; Estatuko eta, hedaduraz, mundu osoko demokrata guztion aurkako eraso bat da, beraz. XXI. mendean Europako demokrazia batek giza eskubideak espetxeratzea aldatu beharra dagoen munduaren adibide adierazgarria dugu.

Akusatuen aulkitik bizi izan duzu epaiketa osoa, Lluís Companys Generalitateko presidentea epaitu zuten aulki beretik. Zer sentipen izan duzu eta zer ondorio atera duzu?
Epaiketaren eguneroko martxa ez zen bereziki nekeza izan niretzat. Estatua gizarte katalanaren aurka bultzatzen ari den oldarraldia azaleratzeko aukera bat zen eta, horregatik, ez nuen abokatuen atzean eseri nahi izan. Companys presidentea epaitu zuten areto berbera izateak erakusten digu estatuak, oro har, ez duela Kataluniarekin darabilen estrategia zanpatzailea aldatu eta, hortaz, gatazka politiko berean murgilduta jarraitzen dugula. Francok ez bazuen lortu gizarte katalanaren autogobernu-nahia zapuztea, Felipe VI.ak ere ez du lortuko. Borroka aspaldi hasi zen eta gure eskubide nazionalak –sozialak ere badirenak– daude jokoan, gure historia kolektiboko beste kapitulu batzuetan gertatu den bezala.

Itxaropenik al duzu Estrasburgok esango duela ez duzuela bidezko epaiketa baterako eskubiderik izan?
Guk ahal dugun guztia egingo dugu, baina Estrasburgo ez da batere paper duina jokatzen ari errefuxiatuen edo oinarrizko eskubideen urraketaren gaiarekin. Beraz, hobe itxaropen handiegirik ez piztea. Badakigu demokraziaren eta giza eskubideen aurkako eraso hau nazioartera zabaltzeko borroka Giza Eskubideen Europako Auzitegitik harago doala eta ez dela fronte juridikora mugatzen.

Nik argi daukat, orain preso nago eta nire helburua ez dela hemendik ateratzeko borroka; horrenbestez, indultua ez da aukera bat, ez niretzat ez Òmniumentzat

Preso politiko eta erbesteratuen aldeko babesak ez du behera egiten. Iruditzen zaizu indar gehiegi jartzen dela errepresioaren aurkako borrokan eta autodeterminazio-eskubidearen aldeko borroka alde batera gelditzeko arriskua dagoela?
Òmniumen errepresioaren aurkako frontea autodeterminazioaren aldeko estrategiaren funtsezko partetzat hartu dugu beti eta, beraz, akats larria litzateke bai borroka horri uko egitea, bai borroka hori gatazka politikoaren konponketaren gainetik jartzea. Horregatik diogu amnistia garaipen bat izango litzatekela mugimendu subiranistarentzat, zigortutako ekintzak delitu ez direla onartzera behartuko bailuke estatua. Xirinacs [Lluís Maria] dugu ildo horren adibiderik onenetakoa.

Batzuk hasiak dira indultuez hitz egiten. Indultatu zer eta zeren truk?
Òmniumen errespetu handia diegu jende guztiaren erabaki pertsonalei, baina nik argi daukat, orain preso nagoela, nire helburua ez dela hemendik ateratzeko borroka. Horrenbestez, indultua ez da aukera bat, ez niretzat ez Òmniumentzat. Kataluniaren askatasuna da lehentasuna, errepresioa amaitzea, giza eskubideak errespetatzea eta autodeterminazio-eskubidea gauzatzea.

OMAR-MSTR

Mobilizazio etengabe eta iraunkorraz hitz egiten duzu. Zertan gauzatzen da?
Orain etapa berri batean sartzen ari gara, borroka antifrankistatzat jo genezakeena, eta mobilizazio eta protestetatik ekintza ez-biolento eta desobedientzia zibilerainoko ekintzak arte biltzen dituena. Modu oso antolatu eta propositiboan egindako ekintzak. Ildo horrek aldaketa pertsonal bat eskatzen du eta bakoitzak bere buruari galdetzea zenbateko sakrifizio-maila onartzeko prest dagoen. Oinarrizko eskubideen zapalkuntza atzera botatzea Kataluniako eta Espainiako Estatuko demokrata guztiok interpelatzen gaituen borroka bat da; tsunami demokratikora eraman behar gaituen pinpilinpauxaren hegada, Gene Sharpek azaltzen duen moduan.

Autodeterminazio-eskubidearen aldeko borroka horretan, zer da berriro egingo duguna, Jordi Cuixarten arabera? Zer ez dakigu ondo egiten eta zer gelditzen zaigu egiteko?
Ia dena dago egiteko, baina gauza guztiz garrantzitsu bat egin dugu: elkarrekin jardunda, Katalunia hautetsontziz betetzeko gai garela erakutsi diogu geure buruari, Estatu osoa eta sei milatik gora polizia zebiltzalarik hautetsontzi haien atzetik. Askoz balio handiagoa aitortu behar diogu U-1ari, arrakasta kolektibo izugarri hari, eta Poliziaren ankerkeria salatzeko U-3an gure herri osoa geldiarazi zuen erantzunari. "Berriro egingo dugu" diogunean esaten ari gara berriro gauzatuko ditugula epaiaren bidez urratu nahi dituzten eskubide guzti-guztiak, adierazpen-askatasunetik hasi eta ekintza ez-biolentora, autodeterminazio-eskubidetik pasaz, jakina. Eskubideak ez galtzeko modu bakarra haiek gauzatzea baita. Eta indar guztiz defendatu behar ditugu, haien alde larrua utzi zutenengatik eta etorriko direnengatik.

> **Askoz balio handiagoa aitortu behar diogu U-1ari, arrakasta kolektibo izugarri hari, eta Poliziaren ankerkeria salatzeko U-3an gure herri osoa geldiarazi zuen erantzunari**

Zer ez genuke berriro egin beharko?
Ni ez naiz jendeari gauzak aurpegiratzen ibiltzeko zalea, baina beharrezkoa da ekintzak eta hitzak ez egotea bananduta, horrek desorientazioa eta desmobilizazioa pizten baitu, bestela. Errudun bila gabiltzan bitartean, estatuak ez du atzerakadaren eta errepresioaren aldeko bere apustua eten. Ez errepresioarekiko beldurra, ez estatuak indarkeria instituzionala erabiliko duen mehatxua, ezta subiranismoaren hegemonia politikorako borroka ere ezin dira gure aspirazio sozial eta nazionalerako oztopo izan. Su-

fragistek eta intsumisoek gogorarazten digute lorpen sozialak ezinezkoak direla borrokarik gabe.

Jadanik bete dira bi urte U-1etik. Zer irakurketa politiko eta sozial egiten duzu denbora-tarte honetaz? Jendea –ez-independentistak barne– eta erakundeak elkartu zituen helburu politikoa izan zen erreferenduma, baina gero desadostasunak azaleratzen hasi ziren.

Oso zaila egiten zait beste jokalekurik irudikatzea eta, beraz, pentsatzen dut Espainiako Estatuak dakien modu bakarrean jokatu zuela: indarkeriarekin. Katalunian, aldiz, bai ateratako irakaspenek (ekintza ez-biolentoaren eta mugimenduaren behetik gorako antolamenduari buruzkoak) bai apriorismoak alde batera uzteak bai hazkunde indibidual zein kolektiboak fruitu ugari eman ditzakete. U-1ean erakutsi genuen jendea gai dela irabazteko, Arendtek dioen moduan "indarraren erabilera botere-gabeziaren froga dela". Horrenbestez, beldurrak ezin ditu gure erabakiak baldintzatu eta koherentziak gidatu behar du egiten dugun guztia. Burujabetza-prozesuak gorabeherak dauzka lehen egunetik, mugimenduaren zehar-lerrotasunaren eta aniztasunaren berezko eta egiturazko ezaugarria da hori. Eraldaketa sozialaren itsasoan, Gandhik zioen moduan, eraikuntza-programaz eta ekintza politikoaz gain, eraldaketa pertsonala dago ere bai. Horixe da erabaki behar dugun hurrengo pausoa. Gure konpromiso pertsonala noraino iristen den galdetu behar diogu geure buruari.

Etapa berri batean sartzen ari gara, eta mobilizazio eta protestetatik ekintza ez-biolento eta desobedientzia zibilerainoko ekintzak arte biltzen dituena

Asko eztabaidatu da mandatuari buruz. Zein da U-1eko mandatua, zure iritziz?

U-1ean autodeterminazio-eskubidea gauzatu genuen. Espainiako Estatuak galarazi egin nahi zuen, baina ez ginen etxean gelditu. Eskubide hura bermatzeko, gauzatu egin genuen, Europako

Francok ez zuen lortu gizarte katalanaren autogobernu-nahia zapuztea, Felipe VI.ak ere ez du lortuko

azken hamarkadetako desobedientzia zibileko ekintzarik handienetakoa izan denaren bidez egin ere. Espetxeratzeak eta erbesteratzeak iritsi ziren bi aste geroago. Gaur egun, parlamentuko presidentea espetxean daukagu eta sailburuak, espetxean edo erbestean. Hala eta guztiz ere, estatuak ez du mugimendu subiranista neutralizatzerik lortu. Mandatua argia da niretzat: zehar-lerrotasunetik eta ekintza-batasunetik borrokatzen jarraitu beharra dago. Errepresioa ezin da muga bat izan eta, beraz, behar beste aldiz bozkatuko dugu.

Oraintxe bertan nolabaiteko kontraposizioa dago Espainiako Estatuarekiko elkarrizketaren eta konfrontazioaren artean. Bateraezinak dira ala dialektikoak? Konfrontazioa beharrezkoa da elkarrizketan oinarritutako konponketa lortzeko?
Elkarrizketaren eta konfrontazioaren arteko eztabaidak ez du zentzurik, etengabe elkarrizketa eskatzea gatazka hau konpontzeko konfrontazio-estrategiaren parte baita. Alferrikako eztabaida hauek alde batera uzten hasi beharko genuke eta, Marcel Maurik dioen bezala, batasunaz gutxiago hitz egin eta gehiago lan egin beharko genuke haren alde.

Ez al da horixe desobedientziaren praktika?
Hain zuzen ere. Desobedientzia zibila borroka ez-biolentoaren tresna bat gehiago da, gizartea hobetzea eta demokrazia indartzea dauzkana helburutzat, legeak gizartearen beharretara egokitzearen bidez. Ekintza ez-biolentoan oinarritzen da eta ekintzen gaineko erantzukizuna hartzean. Horrek ez du esan nahi datorkeen zigorra legitimotzat jotzen denik, ekintzaren ondorioak onartzen direla baizik. Askoz prestakuntza eta kontzientziazio handiagoa eskatzen du, eta aldebakartasunaren antitesia da. Helburua da estatua behartzea negoziatu beharra daukala onartzera. Horregatik diot elkarrizketaren eta konfrontazioaren arteko eztabaidak ez duela zentzurik, konfrontazio-estrategiaren parte baita estatuak elkarrizketarako borondaterik ez duela agerian uztea.

Zer esango zenieke Katalunia independentea nahi duten eta gaur egun etsiak jota dauden pertsonei? Eta independentistak izan ez, eta indarrean dagoen legeria bete beharra dagoela uste dutenei?
Lehenei esango nieke gure aurretik demokraziaren eta askatasunaren defentsan jardun zutenak prest egon zirela bizia emateko eta, beraz, guk ez daukagula etsipenik sentitzeko eskubide handirik. Bigarrenei, pentsa dezatela Europar Batasunak nola tratatzen dituen errefuxiatuak, gure kostetan hiltzen diren afrikarrak edo, Auzitegi Konstituzionalaren babesarekin IBEX-35en irabaziak haziz doazen bitartean, energia-pobrezia jasaten duten gure bizilagunak, guztia ere indarrean dagoen legeriaren izenean. Howard Zinnek zioen bezala, gure arazoa ez da desobedientzia zibila, hori guztia gertatzea posible egiten duten agintarien aginduak betetzen dituzten pertsonak baizik. Desobedientzia zibila indarrean dauden legeak hobetzeko konstituzionaltasun-test iraunkor bat baino ez da. Espainiako Auzitegi Gorenak berak onartu zuen hori 2009ko epai batean, gizarte demokratiko baten osasun-egoera onaren isla ere badela esan zuenean. Edonola ere, katalanen % 80 errepresioaren aurka daude eta gatazkaren konponbide baketsua eskatzen dute. Katalunian kontsentsuzkoa da jarrera hori, eta erreibindikatu egin nahi dugu.

Bizikidetza-krisi bat dagoela dioen errelatoa zabaltzen saiatu dira batzuk, eskuinetik bereziki. Zein da zure iritzia eta zer arrisku dakar?
Negargarria da eta guztiz arduragabea Espainiako herriak elkarren kontra eta Kataluniako herritarrak batzuk besteen kontra jarri nahi izatea, elektoralismo hutsagatik. Arduragabekeria ikaragarria erakusten du. Zoritxarrez, PSOEk berak batzuetan bat egiten du errelato horrekin. Ohiko tresna izaten da erregimen totalitarioetan, beldurraren hazia landatzea eta etsai bat bilatzea. Baina autoestimu handia ematen dit lortu ez dutela ikusteak eta, estatuko intelektual aurrerakoi askok egoera salatzeari uko egin dioten arren, batzu-batzuk ari direla, eta gero eta konplexu gutxiagorekin. Hemen benetan dagoen haustura bakarra hil amaierara irits daitezkeenen eta gainerako guztien artekoa da. Eta zera gogoratu nahiko nuke, Felipe Borboikoak 1990ean aitortu zuen bezala: "Katalunia izango da katalanek nahi dutena". ●

Rikardo Arregi
ORAINGOA OROZ GAIN

50 urte dira kazetari eta saiogile zaildua eta eragile saiatua hil zenetik. Galera ikaragarria eta zinetan mingarria izanagatik ere, fruitu oparo eman du hark egindako lanak, hark ereindako haziak.

MIEL A. ELUSTONDO
ARGIAKO ARTXIBOA

Gabriel Arestik Arregi hil eta hamar egunera Andoainen egin zen herri-mezan irakurri zuen lagunaren omenez poema (*Auhenaren sentimendua* interneten dago entzuteko moduan).

Mina. Kezko bola batek birikak itotzerainoko mina Arestik. Eta mina, Rikardo Arregi ezagutu zutenek ez ezik, haren aditzera izan zuten guztiek, ARGIA honen aurrekari *Zeruko Argia*-n eta, orobat, sasoi hartako *Anaitasuna* edota *Jakin*-en Rikardo Arregiren idazlanak irakurtzen zituztenek.

Ramuntxo Kanblong da eredu eta adibide. *Herria* aldizkariaren 1969ko uztailaren 31ko zenbakian, *Rikardo Arregi-z zombeit gogoeta* artikuluan ageri duen min zorrotza da erakusgarri: "Rikardo Arregi-ren heriotzak, ixtripuz, haren adixkide guztiak harri-turik (sic) utzi gaitu. Euskarak, hain gogorki, adierazten duen bezala: harri bilakaturik. Nork asmatuko zuen, alabaina, hoin fite utziko gintuela 26 urteko mutiko azkar, bizi eta langile hunek. Langile erran dut. Ez zen besterik entzuten ehorzketa egunean: 'Euskal Herriak langile handi bat galdu du'". Kanblongek ez zuen, alabaina, bizpahirutan baizik ikusi Rikardo Arregi. Batak bestea maiz ez ikusia Kanblongek ez zuen tupust ez behaztopa-harri. "Egia erran, ez zen neke gure adixkidearen berri jakitea: aste guziez 'Zeruko Argia' Donostiako kazeta mamitsuan idazten zuen. Eta zer artikuluak gainera! Idazle gazte talde baten laguntzarekin 'Herriak eta Gizonak' deitu hosto bat oso-osoa, mundu zabaleko herrietako eta gizonetako berriez betetzen zuen, eta nola betetzen! Nere ustez, Euskal Herrian zen idazle gaurkoena, oraikoena, munduko gertakarien harat-hunaten zilatzeko. (...) Ez dakit, gure eskualdean, izan den edo baden Rikardo Arregi-k 'Zeruko Argia'-n ereman duen bezalako lan saila eraman duenik".

Zeruko Argia-ko lanekin batera, *Jakin*-ekoak ere aipagai ibili zituen Kanblongek arestian aipatu artikuluan, Joan Mari Torrealdai eta Karlos Santamaria ere aipura ekarriz. Zuzen-zuzenean eta bertatik bertara ezagutu baitzuen Rikardo Arregi Joan Mari Torrealdaik, *Jakin* aldizkariko lanean ordurako.

Torrealdaik bi merezimendu ikusiko zizkion Rikardo Arregiri, hau hil eta urte bira argitara emandako *Rikardo Arregi* (*Jakin*, 1971) liburuan. Batetik, Karlos Santamariarekin batera, Torrealdaik esango zuen Rikardo Arregi langilea, izugarri langilea zela "... ezin sinestekoa, Herriaren alde ekiteko beti prest". Bestetik, pentsalari eta birpentsatzaile genuela. "Rikardo ez zen inertziaz bizi. Berpentsatzailea zen bai politikan, bai euskal arazoan eta bai erlijioan. Errotik euskalduna zen eta errotik gaurkoa (...) asmo honi heldu zion, alegia, euskaltzaletasuna eta gaurkotasuna ezkontzeari".

Langilea, euskaltzalea, gaurkoa.

Kazetaria. Pentsalaria. Birpentsatzailea...

1969KO UZTAILA. ANDOAINGO PARROKIAN EGIN ZUTEN HILETA ELIZKIZUNA.

ALFABETATZEN. RIKARDO ARREGI EUSKALTZAINDIAKO ALFABETATZE BATZORDEKO KIDEA IZAN ZEN ETA KANPAINA ABIATU ZUTEN. ARGAZKIAN IRAKASLE TITULUA EMATEN.

'ZERUKO ARGIA'-KOA, RIKARDO ARREGI KAZETARIA

Zerutik jakina denez, 1919koa dugu *Zeruko Argia*, eta bistan dena, hargatik ari da haren ondoko ARGIA hau mendeurrena ospatzen. *Zeruko Argia*-k hiru aro ere baditu gure egunetarainoko bidean: lehen aroan, sortu eta 1936 arte iraun zuen; bigarrenean, 1954tik 60ra, hilabetekari zelarik; oparoena dugu hirugarrena, 1963tik egundaino irauten baitu, astekari. Eta, hain zuzen, 1963ko epailaren, martxoaren, 3koa dugu lehenbiziko zenbakia. Epailaren 24koa, berriz, Arregi'tar Rikardo'ren hastapen artikulua aldizkarian gerora erreferentziazko saila izango duenean, *Erriak eta Gizonak* izenekoan, alegia. *Erdi sortaldeko zalapartak* dukegu haren lehenbiziko idatzia. "Sortaldea, iparrari begiratu ezkero gure eskubian gelditzen da. Erdi sortaldea, berriz, urrutikoari ez ezik erdi aldekoari deitzen diogu, au da, arabetar erriei. Eguzkia ta petroleoa ugari. Ta baita zalaparta galantak. Zer gertatzen da? Galdera au egitea baño obea da zergatik gertatzen dan galdetzea (...) Bizkor bizkor begiratu bat eman dezaiogun...".

Harrezkero, astero-astero *Zeruko Argia*-n idazten daukagu Rikardo Arregi, hutsik egiteke. *Erriak eta Gizonak* eta *Nazio arteko unea* ataletan idazten zuen, eta, are, atal berririk sortu ere zuen: *Gazte naiz*. Patxi Baztarrikak esatera, 1963tik 1969ra bitarte, Rikardo Arregik 300 artikulu baino gehiago idatzi zituen *Zeruko Argia*-n. Alabaina, bateko *Anaitasuna*-n eta besteko *Jakin*-en ere –pentsamenduzko lanak *Jakin*-en–, idatzi zuen artikulurik. Torrealdairenak dira hitzak, *Herriaren lekuko* (*Jakin*, 1972) liburukoak, non Rikardo Arregiren idatzien antologia ondu baitzuen. "Rikardo ez zen bulegoko gizon narea, noizean behin lanen bat ongi janzi eta apaindu eta lagunen kontsultatxoa egin ondoren, inprimategira entregatzen duten horietakoa, lanaren amaia afari batekin ospaturik. Rikardok ez zuen horretarako astirik, presaka bizi zen (bere bizi-haroaren laburra somatu izan balu bezala). Presaka, bai, herriaren goseak eraginik eta janariaren bilatzeak zirikaturik. Aldizkarietan idaztea ez zitzaion aski, Rikardoren ritmoa ez zen-eta hilabetero idaztea, astero baino. Eta astero egin behar egunerokoen faltan". Eta Rikardo Arregi bera ere horretaz jabeturik zela dirudi *Ezkertiar berriak* artiku-

luan: “1963’gnez geroztik ‘Z. Argia’n, nazio-arteko politikaren albistari izan naizelako, lau urte hauetan politika gertaera ta politikalarietzaz, presaka batean, askotan bi aldiz pentsatu gabe, beti hobetoago egiteko asmoetan, zenbait gauza esan beharrean arkitu naiz”. Eta, berdin, hurrengo batean ere, *Euskaltzaleen jainkoa hil behar dugu*-n: “Bukatzera noa. Lerro hauek ber-irakurri ditut. Berriro idazten asteko asmo bizia etorri zait hori egiterakoan. Ez da posible, ez dut betarik”.

PENTSALARI, BIRPENTSATZAILE

Joan Mari Torrealdai, Joxe Azurmendi, Rikardoren anaia Joseba, Anjel Lertxundi… bat baino gehiago hurreratu dira Rikardo Arregiren idatzietara, haren pentsamendu edo estiloa aztertzera, hark oraingo egunean hartuko lituzkeen balizko bideak zeintzuk genituzkeen igartzeko ahaleginak egitera. Ez da, alabaina, lantegi erraza, aski korapilo bihurria baizik, Rikardo Arregiren gogoak ibili ohi zituen bide zailak bezainbat. Rikardo Arregik pentsatu ez ezik, birpentsatu egiten baitu, birformulatu, batean idatzia, hurrengoan irauli nahiz berrituz. Euskalduna da Rikardo Arregi, baina haren euskaltasuna ez da gauza tinko lurrean betiren beti finkatua, ezarriaren gainean ari da gogoetan, tolesak bilatzen, litsak ateratzen, aldian-aldian bere baitako pentsamendua garatuz doala... Eta, halarik ere, pentsatuak idazten ari da, demokraziaz, sozialismoaz, tradizioaz, zaharraz eta berriaz… Idazten, eta idatzi orduko, unean berean zalantzan jartzen, baina arriskuak hartu eta idatzi haiek argitaratzeko prest, aurrera egiten lagunduko dutelakoan: askatasuna, abertzaletasuna, marxismoa, dogmakeria, sozialismoa…

Joxe Azurmendi dugu Rikardo Arregiren lana gehien eta sakonkien aztertu duen ikertzailea. 1972an bertan, *Hitzaurre politikoa* idatzi zuen Rikardoren kazetaritza-lanen antologia dugun *Herriaren lekuko* liburuan. Haren nortasun politikoaz, gaurkotasunaz eta eboluzioez ari zitzaigun Azurmendi orduko hartan. Handik urteetara, berriz, 1996an, bitan banatu zuen Joxe Azurmendik Rikardo Arregiren gaineko aztertzea. Haren kazetari eta saiogile izaera jorratu zuen, batetik, haren euskalgintza –*Euskalgintza berdin gizagintza* zioen Azurmendik izenburuan–, bestetik.

Nortasun agiria

Rikardo Arregi Aranburu (Andoain, 1942–Mendaro, 1969). Lehen ikasketak jaioterrian egin eta apaizgaitegian zen 1953an, Saturraranen eta Donostian, 1962 arte. Batxilergo ikasketak burutzeko baliatu zituen udak, apaiz ikasketek ez baitzuten balio ofizialik kaleko bizian. Ondoko urtean, Ekonomia Zientziak ikasten zen Bilbon, eta, aldi berean, kolaboratzaile Zeruko Argia (Erriak eta Gizonak eta Gazte naiz sailak), Anaitasuna eta Jakin aldizkarietan. Irakasle jardun zuen aldi batekoz Donostiako Santo Tomas Lizeoan, eta, handik gutxira, Pax-Christi erakundeko kide zen. 1964an euskaltzain urgazle izendatu zuten. Urte berean, Martuteneko kartzelan eduki zuten, EGIko kide izateaz akusaturik. 1965ean, Lauaxeta kazetaritza saria jaso zuen, artikulugile onenarena.

1966an Espainiako soldadutza egin zuen; hamazazpi hilabete egin zituen Ferrolen eta Cadizen. 1968an, soldadutzatik itzuli eta alfabetatzeari buruzko bigarren txostena aurkeztu zion Euskaltzaindiari. Lur editoriala bultzatu zuen, Ramon Saizarbitoria, Ibon Sarasola, Arantxa Urretabizkaia eta beste zenbaitekin batera.

1969ko uztailaren 10ean hil zen, auto-istripuz, Euskaltzaindiaren bilera batera Bilbora Ramon Saizarbitoriarekin zihoala.

Andoaingo Tours-eko San Martin elizan egin zen hileta meza, eta herriko hilerrian datza lurpean.

Ehorzketa egunetik astebetera, berriz, herri-meza egin zuten Andoainen bertan, eta ordukoa da Gabriel Arestik Rikardo Arregiri idatzitako poema sarkorraren audioa: Auhenaren sentimendua. Rikardo Arregiren heriotzeagatik negarrez.

Haren heriotzak gogor jo zituen euskaldun eta euskaltzaleen bihotzak, eta, hein batean, bederen, mobilizarazi egin zuen sasoiko intelektualitatea. Rikardo Arregi hil eta gutxira argitaratu zituzten haren lanak; ororen buru, Politikaren atarian (Lur, 1969), Rikardo Arregi (Jakin, 1971) eta Herriaren lekuko (Jakin, 1972). 1996an, berriz, Rikardo Arregi: gizona eta garaia argitaratu zuen Andoaingo Larramendi Kultur Bazkunak, hainbat egileren ekarriak bilduz.

1989an, Rikardo Arregi Kazetaritza Sariak eman zituen lehenengoz Andoaingo Udalak, eta euskarazko kazetaritza sariok ematen ari da harrezkero.

1998an, Rikardo Arregiren biografia ondu zuen Patxi Baztarrika hizkuntzalari eta politikariak Bidegileak bilduman.

Gorago ibili dugun Arestiren audio ikaragarri hori ez ezik, beste bat ere bada, zinez historikoa, Rikardo Arregi Kazetaritza Sarien webgunean (nahiz youtube-n, Rikardo Arregiren hitzaldia Usurbilen), non Rikardo Arregi bera aditzen baitugu hitzaldi suharra egiten 1966an Usurbilen, Udarregi bertsolariaren omenaldiaren karietara, bazkalondoan. Noaua herri aldizkariak zenbaki berezia kaleratu zuen Udarregiren omenezko eskulturaren 50. urteurrenean, eta bertan irakurgai da Rikardo Arregiren hitzaldi hori. Usurbilgo hitzaldia ere deitua, Rikardo Arregiren pentsamenduaren gogoaren bide meharrak zertan diren erakusten digu berbaldiak. Bestalde, hitzaldia ardatz hartu eta filma grabatzen hasi zen Maluta Films ekoiztetxea iragan agorrilean Usurbilen bertan.

Ramuntxo Kanblongek idatzi zuenez, Rikardo Arregi “oraikoa, gaurkoa”.

Ortodoxia hil bedi, Gora errebisionistak!, Sozialismoa modan dago, Euskaltzaleen Jainkoa hil behar dugu, Eguzkialdeko haize horiek... Rikardo Arregik gogoan zerabiltzan gaien aldarri ditugu.

LANGILE, ETA ERAGILE

Zeruko Argia-n kazetari hasi bazen ere, idatzitako artikulu zorrotz gatz eta piper handikoek –hortxe eragin zituzten polemikak ere– bezainbeste aipu eta sona eman zioten Rikardo Arregiri euskaldunok alfabetatzeko egindako gogoeta, lan eta kanpainek. Sen horixe izan zuela esan liteke. Ez alferretan, hura hiltzean alfabetatzearen eragile baitezpadakotzat jo zuen Euskaltzaindiaren Alfabetatze batzordeak 1971n *Rikardo Arregi* liburuan. Euskaldunak euskaraz analfabeto baikinen, "Rikardok arazo izugarri hau somatu eta aztertu zuen; bainan hori bakarrik ez, berehala presentatu baitzigun problema horren soluzio-biderako erremediua: Alfabetatze Kanpaina". 1966ko urtarrilekoa da arestian aipatu batzordeak Euskaltzaindiari egindako proposamena, Jarrai taldearen izenean. Sinatzaileak ziren Juan San Martin, Mikel Lasa, Iñaki Beobide eta Rikardo Arregi. Akademiak asmoa ontzat eman, eta Patxi Altuna ere batzordekide izendatu zuen.

Eta herriz herri zabaldu zuten kanpaina, eta metodoa zehazteari lotu zitzaizkion, eta hitzaldiak egin zituzten, eta irakasleak prestatzeko ikastaldiak –lehena, Donostian, 1967ko agorrilean–... Rikardo Arregi soldadutzan zen sasoian.

Soldadutza eginik, eta asmoak umotu eta zorituagoak zituela etorria, 1968ko urtarrilean beste txosten bat egin zion batzordeak Euskaltzaindiari. "Garai txarrak ordukoak. Rikardok, ordea, segi eta segi, eta alfabetatzearentzat antolaketa berria egitea erabakitzen du". Eta kanpainari laguntzeko dirua inguratzea, eta alfabetatzearen bigarren maila abiaraztea, dibulgaziozko liburuak argitaratzeko argitaletxea antolatzea –zein izango baitzen Lur–, eta hamaika lan eta buruhauste, 1969ko otsailean alfabetatze mugimenduaren antolatze eredu berria erabaki arte. "Alfabetatze lana bere bidetik jarria zuen joan zitzaigunean, eta aurrera doa [1971], berak hazia ereinda utzi baitzuen (...) gauza da Rikardok burutu eta hasiera emandako ekintza garrantzitsu hau ez dela nolanahi izkutatuko, egunetik egunera indartu baizik", zioten Alfabetatze batzordekoek eta, behingoagatik, asmatu zuten.

Eta, hor, beste monumentu bat, Joan Mari Torrealdaik Rikardo Arregiri hil aurretxoan egindako elkarrizketa –*Rikardo Arregi, gizona eta garaia* liburuan, *Alfabetatzearen hasieran, Rikardo*–, alfabetatze mugimenduaren gainean.

Hark ereindako hazitik sortuak, zenbat eta zenbat. ●

HERRIAK ETA GIZONAK

RIKARDO ETXEAN GIZONA

Rikardo Arregi pentsalaria

Bere lanak eta berari buruzkoak

RIKARDO ETA KULTURA

Euskal Alfabetatzea Rikardo gabe

ZERUKO ARGIAN. 1969KO UZTAILAREN 27KO ZENBAKIAN AZALEAN AGERI DA RIKARDO ARREGI ZENA. BARRUAN ORRIALDE OSOA EMAN ZIOTEN HAINBESTE ARTIKULU IDATZI ZITUEN KIDEARI.

Euskal Herriaren eta euskararen salbazioa

(...) Eta gure errealitatea da gaurko gure Euskal Herri hau ez dela euskalduna, ez baitago euskaldunen mendean, ez baitago euskaldunen eskuetan. Eta alferrikakoa da gurasoei eskatzea bere semeei euskaraz erakustea. Borondate onez ez da euskara salbatuko. Euskara salbatuko da Euskal Herriko zineak, Euskal Herriko legeak, Euskal Herriko gizartea euskaldunen eskuetan egongo den orduan. Gainontzekoak gezurrezkoak dira (...) Gure errealitateari aurpegi eman behar diogu, ez gaitezen lainoetan ibili. Estatu batek bakarrik salbatu lezake Euskal Herriaren salbazioa (...)

1966an, Rikardo Arregik Udarregi bertsolariaren omenaldiaren karietara, Usurbilen eman zuen hitzaldiaren pasarte bat.

BABESLETZA:

Arabako Errioxan

Topa beste ehun urteren alde!

Irailaren 21ean, ARGIAko hainbat langile eta kolaboratzaile elkartu ginen Villabuena-Eskuernagan komunikabide honen Mendeurrena ospatzeko, Besa upategian. Araba Errioxako hamaika kontu ezagutzeko aukera eman zigun eta sorpresaz betetako eguna izan zen.

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA DANI BLANCO

Urtero xamar egiten du ARGIAK langile eta kolaboratzaileekin otordua, taldea egiteko. 100 urte guztion artean egin ditugunez, noizbait ARGIAN kolaboratu izan dutenei bidali diegu aurten gonbidapena. Etorri ezin izan zuten horiek guztiak beude lasai, bildutako 41 lagunek haien izenean ere edan zuten-eta.

Goizian argi hastian abiatu zuten bidaia Euskal Herriko lau lurraldetako lagunek (Zuberoa eta Nafarroa Behereko ordezkaritza falta izan zitzaigun). Autobusa partekatu genuen, Villabuenara bide luzetik joanaz geldialdi bakoitzean koadrilatxo bat gehitzeko. Bidaia luze horretan bazen, ordea, zer eginik: lagun zahar eta ezagun berriekin kontu-kontari aritu, Jon Mikel Intsausti kolaboratzaileak bere ekimenez egun horretarako berariaz prestatutako Villabuenari buruzko erreportajea irakurri... edo gutxi al da, Euskal Herriko paisaia eta klima kilometro gutxian nola aldatzen diren ikustea?

LABAR DOLAREETARA IBILALDIA. Jon Mikel Intsausti gidari zela, ibilbide benetan interesgarria egin genuen bazkalaurretik. Dolareak XII. mendean gizakiek harrietan egindako zulatuak dira. Harrizko dolareek harraska nagusi bat dute, non nekazariek oinak erabiliz mahatsa zapaltzen zuten muztioa lortzeko. Muztioa beherago kokatutako beste aska txiki batera igarotzen zen eta hemendik zahagietara sartzen zuten upeltegira eramateko. Labar dolareak XVI. mendera arte erabili zituzten eta Errioxa ardoaren lurraldean diren 200 dolaretatik %95 Sonsierra eskualde honetan daude: Bastidak 57 ditu, San Vicentek 50, Abalosek 27, Gatzagak 18 eta Villabuenak 10.

HASTEKO, HAMAIKETAKOA

Villabuena-Eskuernagara iristerako prest zeukaten Besa Upategiko lagunek hamaiketakoa, kalean jarritako mahaietan. Ardoak dastatu eta mokadua egin bitartean, upategiaren martxa daramaten Esti Besa eta Lorentxo Gorroñok beren langintzaren berri eman ziguten. Zorrotz eta umore kolpez azaldu zuten Villabuena-Eskuernaga dela munduan biztanleko upategi gehien duen herria: 300 inguru biztanleko herri honetan 50 bat upategi daude. Gaurkotasun handiko hainbat gai ere astindu zituzten bien artean: ekoizpen ekologikoari nola heldu zioten; klima aldaketa zertan nabaritzen duten eta zer ondorio dituen mahastigintzan; upategi ia denek mahatsa biltzeko hartzen dituzten langileei ematen dizkieten lan baldintza eskasak eta kontratuekin egiten dituzten iruzurrak; herriak eta bailarak etorkizunerako dituen erronkak eta arazo nagusiak...

NAFARROAKO ERRESUMARENTZAT ESTRATEGIKOA

Hamaiketako ederrarekin indarrak hartuta, herriko plazara jo genuen, handik labar dolareetara ibilaldia egiteko (ikus koadroan labar dolareak zer diren). Herriko plazan laburbildu zuen Intsaustik Villabuena herriaren eta Toloño mendi-lerroaren magalean zabaltzen den Sonsierra bailararen historia; eta Nafarroako Erresumarentzat zergatik izan zen eremu estrategikoa:"XI. mendean, Sonsierra Iruñeko Erresumako eskualderik idorrena zen –batzuetan ez zuen urteko 300 litro euri baino gehiago jaso, gaur egun Bardeetako basamortuak baino gutxiago–. Muturreko baldintza horietan ez da harritzekoa Sonsierra biztanleria txikikoa izatea. XII. mendearen bigarren erdian alabaina, Erreinuaren sartaldean egoera politiko eta militarra oso zaila zen, Gaztelako Erreinuak bereganatu nahi baitzuen. Nafarroako Antso VI.a Jakitunak (1150-1194) eskualdea birpopulatzea erabaki zuen, eta Guardiako Foruaren bidez (1164) pribilegio berezia eman zien bertako nekazariei, landu gabeko lurrak ("errege-llecoak") landuz gero, haien jabe bihurtuz.

Antso VI. Jakitunaren seme Antso VII.a Azkarrak (1194-1234) aitak hasitako birpopulazio politika jarraitu zuen, eta lur idor hau oparitzea ez zenez eskualdea birpopulatzeko nahiko pizgarri, bi erregeek hainbat hamarkadatan Sonsierrako beste bost hiribildu gehiagori foruak eman zizkieten: San Vicente (1172), Labraza (1196), Viana (1219), Bastida (1194) eta Gatzaga Buradon. Guztira sei foru emate 400 kilometro koadroko azaleran. Miguel Larreina ikertzaileren iritziz, interes handia zuten erregeek lur hauek populatzeko, izan ere, Arabako gainerako eskualdeetan (hamar aldiz handiagoa den azaleran) dozena bat foru baino ez zituzten eman.

XIV. eta XV. mendeak Nafarroa eta Gaztela arteko gatazka gogorren garaiak izan ziren. XIV. mendean Nafarroako Erresumak 1.200 metrotik gorako tontorretan Nafarroaren defentsarako lau gaztelu zituen Toloñoko gailurrerian: Buradongo gaztelua, Toloñokoa, Herrera mendatean den San Leon mendikoa eta Toroko gotorlekua, Cruz del Castillo haitz zorrotzean kokatua. Gaztelarekin mugan izanik, etengabeko zaintzan ziren gaztelu hauek eta erasorik aurreikusiz gero, komunikazio seinaleak bidaltzen zizkioten elkarri adar edo olifantez, eta lainotutako egunetan suak piztuz, Iruñerrian nafar errege-erreginek berehala etsaien erasoaren berri izan zezaten. Abisua haitzez haitz, gazteluz gaztelu egungo Nafarroan barrena sartzen zen: Marañon, Punicastro, Deio, Lizarra, Jaitz eta Irulegi (Aranguren), 100 kilometro eginda Iruñeraino iritsiz".

VILLABUENA EDO ESKUERNAGA?

Historia azalpenak amaitzeko, galdera delikatua jaulki zuen Intsaustik: "Villabuena

edo Eskuernaga, nola du izena?". Izan ere, hiribilduak "Villaescuerna" izen zaharrari muzin egin zion 1688an, kanpotarrek iseka egiten omen zietelako, gaztelerazko adar kontuak ekartzen zituelako gogora, eta "Villabuena" izena jarri zioten hiribilduari. Euskaltzaindiak erdarazko izena dauka euskal era arututzat, alegia, "Villabuena". Eta egun Udalak euskal izentzat daukan "Eskuernaga" ez du Euskaltzaindiak onartzen. "Eskuernaga" izena "Villaescuerna" zaharretik abiatutako izena da, baina etimologikoki ez dela zuzena adierazi zuen Intsaustik. Gorroñok honela laburtu zuen auzia: "Udalean planteatu genuen, herriari izena emateko zer izan behar da, erregea? Bada guk erabakitzen dugu Eskuernaga deitzea eta kito".

Logroñon (Errioxa, Espainia) bizi den euskaldun koadrila bat ere bazen gure artean, eta haiek kontatu ziguten egunero hainbat autobus bete ume aritzen direla joan-etorrian Logroño eta Oion artean, ikastolan euskaraz ikas dezaten. "Logroñon euskaldunon komunitatea handia gara, eta inoren lurraldean gaude" adierazi zuten.

ESKUALDEKO GAZTETXEAN *IN CRESCENDO*

Labar dolareetara mendi ibilalditxoa egin ostean bapo jan eta onetik edan genuen Besa Upategian. Kafetan ginela, sorpresa ederra eman ziguten herriko gazteek: duela hilabete batzuk upategi ondoko etxea okupatu zutela iragarri zuten, eta hiru solairuko eraikina erakutsi ziguten. Zabala eta argitsua, txukuntzen eta konpontzen lan handia egin dutela bistakoa zen. "Eskualdeko gazteon artean harreman oso gutxi izan dugu orain arte. Norbera bere adinekoekin bildu izan da, baina urte batzuk zaharrago eta gazteagoen artean ez dugu loturarik. Gaztetxe honek bailara osoko gazteak bildu eta gure arteko harremanak sendotzeko balioko du".

Gaztetxearen beheko solairura joan garenean egin dugu topo hurrengo sorpresarekin: Azken Hatsa taldeak kontzertutxoa eskaini digu, Argia Jendea dantzan jarriz. Hemen ere ez da espontaneorik falta izan, eta bata bestearen segidan kolaboratzaile batek gitarrari heldu dio, ondoren besteak bateriari eta azkenik hark mikroari, kontzertua behar zuena "mikrofono irekia" emanaldi bihurtuz.

URRIAREN 12RA ARTE

Egun bakarra gehiago zukutzea zail dela pentsatuz eta elkarri eskerrak emanaz agurtu dituzte upategiko jabeak eta gaztetxeko kideak. Autobusak ekin dio itzulerako bideari. Despedida guztiak dira xamurrak, ordea, hurrena elkartzeko hitzordua jarria denean: berriz ere aukera izango dugu Besa ardoa edateko, topa egiteko eta Argiako langile, kolaboratzaile eta Argia Jendeak topo egiteko urriaren 12an, Donostian egingo dugun Mendeurren Festa Nagusian. Sarri arte! ●

Bertso berriak Elustondok jarriak

Gaztetxeko sotora jaitsi eta eszenategia ikusi orduko, Miel Anjel Elustondok bihurri aurpegiz galdetu zuen ea hor ekitaldiren bat egina zuten. Laster inauguratzekoak direla (eta beraz, oraindik ezetz) arrapostu gazteek. Saltoan igo da eszenatokira astekariko elkarrizketen egile beteranoa, eta denok ustekabean harrapatuz paper bat atera du eta Argiari buruzko koplak kantatzeari ekin dio. Hona hemen batzuk:

ARGIAk ditu 100 urte (bis)
iristea inork uste?
Akatsak galantak baina
zenbat ta zenbat bertute!
ARGIAk ditu 100 urte
zenbat ta zenbat bertute!

Independentzia xede (bis)
ARGIAk du alafede
berriketa gutxi eta
koherentzia du lege.
Independentzia xede
koherentzia du lege.

Zer da hau? Hau da ARGIA (bis)
gau beltzean ilargia
mundu zuzen hobe baten
zeru-infernura gida.
Zer da hau? Hau da ARGIA
zeru-infernura gida.

Pa ta pot zuri Ortullu (bis)
munduan zenbat kaskailu
publizitate zorretan
Ortuzar eta Urkullu.
Pa ta pot zuri Ortullu
Ortuzar eta Urkullu.

Zuzendaririk ere ez (bis)
pagatuz zergak eta BEZ
gogotik lan egin eta
kontzientzia lanabes.
Zuzendaririk ere ez
kontzientzia lanabes.

Banoa bota baino lehen (bis)
ez harrika eraso, arren
bete 100 urte gehiago
ta itzuli berriz lehenbailehen.
Banoa bota baino lehen
ta itzuli berriz lehenbailehen.

ALLENDEREN ESPIRITUA IKASLERIAK GORPUZTU DU TXILEN

Ekonomia neoliberalean murgildua den Txilen bada munduko beste herrialdeentzat erreferente den subjektu politiko bat: ikasleria. 2019a istiluekin hasi dute, eta ikasturte beroa iragartzen duenik ere bada, gobernua kinka larrian jartzera ere iritsi baitira.

IÑAUT GONZALDEZ DE MATAUKO RADA

Herritar askoren iruditegian iltzatuta geratu da Salvador Allenderen azken urteetako figura, fusila eskuetan. Hala ere ez da hain ezaguna gazte garaian ikasle mugimenduaren ordezkari garrantzitsua izan zela.

1921ean, bigarren mailako ikasketak amaitzen ari zela, Juan Demarchi zapatari anarkista ezagutu zuen Valparaíso hirian. Xakean jolasten erakutsi zion gizonak, eta Allendek berak onartu zuen bere influentzia nagusienetariko bat izan zela, orduz ibiltzen baitziren xakean jolasten eta hitz egiten. Allendek Demarchiren eskutik jaso zituen lehenengoz testu marxistak, eta horrek jada piztua zuen kontzientzia soziala indartzen lagundu ziola onartu zuen.

1926an medikuntza ikasten hasi zen Allende Txileko Unibertsitatean, eta ikasle mugimenduko agente aktibo izan zen urte luzez. Bertako hainbat lagunekin Grupo Avance taldea sortu zuen, eta Txileko Ikasleen Federazioko lehendakariorde izatera iritsi zen; bertatik Carlos Ibáñezen diktaduraren aurka borroka egin zuten. 1932an hiru hilabete eskas iraun zuen Txileko Errepublika Sozialistan aktibo izan ziren pertsonek errepresio gogorra pairatu zuten ondorengo gobernu aldian, eta Allende atxilotu egin zuten urte hartan. Kartzelan zela, bere aita hil zen, eta bere ideien aldeko borroka muturreraino eramango zuela zin egin zuen.

Txile 1973ko estatu-kolpetik hona politika neoliberaletan murgilduta egon da, eta Hego Amerikako AEBen aliatu nagusia izan da urteetan. 1990ean Augusto Pinocheten diktadura amaituz geroztik gobernu ezkertiarrek eta eskuindarrek boterea elkarbanatu dute, baina Felipe Portales ikerlariak salatzen duenaren arabera, Txilek inoiz ez du benetako demokraziarako trantsizioa egin. Horren adibide, diktadorearen lege batzuk indarrean daudela gaur egun. Ekonomian Chicago Boys deiturikoek diseinaturiko jardun liberalizatua nagusi da herrialdean. Politika neoliberal horri ikasleria kontrajarri izan zaio subjektu aktibo gisa, eta urteetan klase politikoari etengabe hortzak erakutsi dizkio.

"ABERRIAK EZ DU ITXARONGO!"

1987an Txileko Unibertsitateko errektore Roberto Sotok unibertsitateko goi karguak modu demokratikoan hautatzeko pausoak eman zituen. Begi txarrez ikusi zuen hori Pinochetek, eta kargutik kendu zuen Soto. Estatuaren jabetzako enpresetan kargu garrantzitsuak bete zituen José Luis Federici zibila ezarri zuen haren ordez errektore errektore. Ikasleriak berehala erantzun zuen, aukeraketa berria unibertsitatearen demokratizazioaren aurkakoa zela ulertu baitzuten. Federici hautatu eta egun gutxira, irakasle eta ikasleek zilegitasuna ukatu zioten eta greba deitu zuten.

Diktadorearen krudelkeria presente izan arren, Txileko hiri nagusietako kaleak ikaslez bete ziren egun horietan,

eta herritar askoren laguntza jaso zuten. Irailaren 24an protesten etorkizuna guztiz baldintzatu zuen gertaera bat jazo zen. Unibertsitatetik hasi zen manifestazio bat Udal Antzokira gerturatzen ari zela, karabinieri batek (Txileko polizia militarra) buruan tiro egin zion manifestari bati eta berehala atxilotu egin zuten, "polizia-agente bati eraso egitea" egotzita. Teleanálisis izeneko hedabide alegal batek, baina, gertaera grabatuta zuen eta grabazioek erakutsi zuten manifestariak ez zuela inongo erasorik egin, arrazoirik gabe egin ziotela tiro. Hedabide ofizialen bertsioa hankaz gora jarriz, hauek diktaduraren-tzat betetzen zuten funtzioa agerian geratu zen, eta ondorengo egunak guztiz baldintzatu zituen.

Gertaera horrek mugimenduaren polarizazioa ekarri zuen, eta ikasle batzuk gose greban hasi ziren. Manifestazioak biderkatu egin ziren Txileko hiriburuan, eta honek grebalarien eta diktaduraren aldeko talde erreakzionarioen arteko liskarrak eragin zituen.

Protestaldi hauen amaiera Santiagoko Zuzenbideko Fakultatean gertatu zen. Hiriburuko kaleak ikaslez gainezka zeudela, Federicik Zuzenbide Fakultateko dekanoa aldatu eta Pinocheten aldeko abokatu bat ezarri zuen. Ikasleen haserrea eragin zuen horrek, eta dekano berriaren bulegoan sartu eta suntsitu egin zuten. Pinochet bera unibertsitatera bertaratu zen, eta egoeraren larritasuna ikusita, urriaren 29an Federiciri dimititzeko eskatu zion.

Greba hauen ondorioz sektore ugaritako herritarrek diktaduraren aurka elkarrekin borrokatu zuten: langileak, ikasleak, irakasleak eta zibilak. Herritarren gehiengoak orduko sistemarekiko zuen iritzia mahai gainean indarrez jartzea lortu zuten. Garai hartakoa da "ogia, lana, justizia eta askatasuna!" lemapean egin zuten greba orokorra. Germán Quintana garaiko Txileko Ikasleen Federazioko presidenteak Teleanálisis hedabideari luzatutako hitzek argi uzten dute egun horietako tentsioa noraino iritsi zen: "Borroka hau amaieraraino eramango dugu. Hemen ez dago berdinketarik, dena irabaziko dugu ala dena galduko dugu". Pinochetek Juan de Dios Vial filosofoa ezarri zuen Federiciren karguan, eta oposizioak garaipen

PAULO SLACHEVSKY (CC BY-NC-SA)

1987AN FEDERICIREN IZENDAPENAK SAMINA ERAGIN ZUEN IKASLEENGAN, ETA HILABETEZ GREBA ETA MOBILIZAZIOAK EGIN ZITUZTEN.

handitzat hartu zuen hau. Horrez gain, Pinocheten aldeko talde erreakzionarioen eta militarren eragiteko gabeziak agerian geratu ziren.

PINGUINOEN IRAULTZA

Txileko ikasle mugimenduak azken hamarkadetan estatuarekin izan duen gatazka nagusia Pinguinoen Iraultza edo Pinguinoen Mugimenduarena izan da, 2006an. Ikasleen uniformeek hegaztiarekin duen antzekotasunari erreferentzia egiten dion mugimendu hau XX. mendean munduan izan den ikasleriaren mobilizazio masiboena da askorentzat. Ez bakarrik mugitzeko gai izan zen ikasle kopuruagatik, estatuari egin zioten ofentsibaren neurriagatik batez ere. Txileko politika eta egunerokotasuna erabat determinatu zuen fenomeno honek, eta nazioartean sona izan zuen.

Hasiera batean mugimendu honek bigarren mailako irakaskuntzaren azpiegiturak hobetzea aldarrikatzen zuen. Hala ere mobilizazioek beste funts bat ere bazuten: maila guztietako hezkuntzaren kalitateaz eta estatuak hezkuntzan izan behar duen paperaz eztabaida agenda politikoaren erdigunean kokatzea. Eta lortu zuten.

2006ko apiriletik urrira arte luzatu zen borroka epe hau. Apirilean unibertsitatean sartzeko proba eta eskola garraioa doakoa izatea eskatuz mobilizazioak egin zituzten ikasle batzuek, eta 47 ikasle atxilotu zituzten istiluetan. Mobilizazio horiek nahiko marjinalak izan ziren arren, ondoren etorriko zenaren aurrekariak izan ziren. Maiatzean ikasleak antolatzen hasi ziren, eta hilaren 26an ustekabean 100 eskola baino gehiagotan greba egin eta kalera atera ziren milaka ikasle. Hilaren 30erako Ikasle Greba Nazionala deitu zuten, eta 700.000 ikasle atera ziren kalera 19 milioi biztanleko herrialdean. Gobernuaren alarmak piztu zituen gertakariak, eta hurrengo egunean Michelle Bachelet presidentea, egoera baretzeko asmotan, ikasleen alde agertu zen prentsaurrekoan: "Ikasleek haien eskakizunak jakinarazi dituzte, eta justu eta zilegiak direla deritzot, hezkuntzaren hobekuntza nahi baitute". Ondorengo egunetan greba gehiago zeuden deituta, eta aurreko deialdiak izandako arrakasta ikusita, desaktibatzen saiatu zen: "Deituta dauden greba deialdiak, egun, ez dira beharrezkoak", esan zuen.

Mugimenduak baina, berehala hartu zuen dimentsio handiagoa, eta LOCE hezkuntza legea indargabetzeko eskatu zuten. LOCE Pinocheten azken lege-proiektu nagusia izan zen, diktaduraren azken egunean onartu baitzuen. Beste esparru askotan bezala, diktadoreak hezkuntza liberalizatu eta sektore pribatuaren esku utzi zuen. 2006ko protesta hauetan ikasleek hezkuntza estatuaren eta inbertsio publikoaren esku egotea eskatzen zuten, hezkuntza publikoak zituen arazoak konpontzeko.

Ondorengo asteetan grebek eta mobilizazioek aurrera jarraitu zuten, baina mugimendua higatzen hasi zen, sektore erradikalen eta moderatuen arteko kontraesanek barne haustura ekarri baitzuten. Hortik aurrera, ikasleriaren parte batek mobilizatzen jarraitu zuen, baina mugimenduak ez zuen gehiago izan hasierako batasun maila eta indarra. Hala ere, eragin handia aitortzen zaio mugimenduari, handik bi urtera LGE Hezkuntzaren Lege Orokorra onartu baitzen, indar politikoen eta Kongresuaren arteko

2006AZ GEROZTIK IA URTERO MARTXA ETA MOBILIZAZIO JENDETSUAK EGIN DITUZTE TXILEN HEZKUNTZA DUINAGO BATEN ALDE.

akordio transbertsal baten ostean.

Parisko Gobernantzaren inguruko Ikerketa Institutu batek 2007an egindako ikerketa batean garai hartan 17 urterekin Pinguinoen Mugimenduan murgilduta ibili zen Natalia Núñezen inpresioak irakur daitezke, haren ustetan mugimenduaren indarguneak eta ahulguneak zeintzuk diren.

"Mugimendua herrialde honetan gertatu den fenomeno onena izan da. Batez ere lortu zen batasunagatik", dio Núñezek ikerketan, gizarteak egoera puntualetan borrokarako duen indarra azpimarratuz. Gobernuarengan presio handia eragin zutela dio, eta horrek, aldi berean eskakizunak benetan lortu ahal izatea ekarri zuela. Eskaerak, baina, gehiegizkoak zirela uste du, eta horrek seriotasuna kentzen zuela, politikariei "ikasleria infantilizatzeko eta desprestigiatzeko" aukera emanez. Bestalde, gehiegizko eskakizunek mugimenduaren barruko giroa nahastu zutela dio, eta barne hausturen arrazoietako bat izan zela ziur da.

2006ko Pinguinoen mugimendua borroka handia izan zen ikasle txiletarrentzat, eta gazte askoren lehen esperientzia politikoa izan zen.

'AULA SEGURA' LEGEA IKASLEEN AURKA

Sebastian Piñera independentea buru duen Gobernuak ikasleriaren aurkako neurri berri bat hartu du 2018an, borrokatzen duten ikasleen aurka zuzen joz. Aula Segura du izena legeak, eta ikastetxeetako zuzendariei erraztasunak ematen dizkie "biolentzia kasuetan" murgilduta dauden ikasleak kanporatzeko. Honek 2011ko martxen eta greben ostean itzalita zegoen ikasle mugimendua berpiztu du.

Azken urteetan Txileko hainbat lizeotan jazotako "biolentzia kasuekin" amaitzea du helburu Aula Segura legeak, eta ikasle mugimenduko hainbat eragilek eta hezkuntza komunitateko instituzio batzuek gogor kritikatu dute. Educación 2020 eta Txileko Hezkuntza Politiken Behatokiko bi adituk legea "egonarri gutxirekin eta asko pentsatu gabe" egin zutela salatu dute, ikasle talde batzuekin jazotako ezbehar batzuei "irteera bizkorra" bilatu nahian.

Ikasleriak berehala identifikatu zuen neurri hau eraso zuzen gisa, eta antolatzen eta mobilizatzen hasi dira. Egoera horretan, 2019a mobilizazio eta grebekin hasi dute bigarren mailako eta unibertsitateko ikasleek, eta polizia militarrarekin liskarrak izan dira manifestazioetan. Apirilaren 25ean 20.000 ikaslek kaleak hartu zituzten Txileko Ikasleen Federazioak antolatutako martxetan, eta karabinierien aurkako liskarretan 35 ikasle atxilotu zituzten. Sei ikasle adingabe beren etxeetan atxilotu zituzten, irakasleen aurka "bonba pizgarriak" erabiltzea egotzita.

Belén Larrondo Txileko Ikasleen Federazioaren bozeramaileak salatu du ikasle mugimenduak egiten dituen eskakizunei gobernuak ez dietela erantzuten: "Gobernuak ez du erakutsi gaizki ezarri diren neurriak hobetzeko borondatea, doakotasuna adibidez, eta hutsuneak estaltzeko neurriak hartzen ari da etengabe. Neurri hauek, baina, ez dute Txileko hezkuntza errotik aldatzeko xederik".

Aula Segura legearen aurkako protestek ez dute Pinguinoen Iraultzak mobilizatu zuen ikasle-masa mugitzeko indarrik izan, baina Txilen ikasle mugimenduak tinko jarraitzen duela erakusteko balio izan dute, eta etorkizunean estatuari benetako desafioa egitea posible izan daitekeela ere erakutsi dute. Azken finean, Allenderen filosofia barneratuta dauka Txileko ikasle mugimenduak: inoiz ez errenditzea, nahiz eta garai batzuetan jende gutxiago mugitzeko gai izan. ●

EGUZKI PANELA
GELDIRIK HAZI EDO LEPO EGIN

Lurgaineko landarea, guk ikusten duguna, eguzki panel soil bat da. Lurpean bizi da benetako landarea; begi bistan duguna baino askoz ere handiagoa.

JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Kaleko espaloietatik urrun bizi naiz, eta horrek baditu alde onak eta hobeak. Onenetako bat bizilagunak dira. Kalean atari berean edo bestetxean edo etxekonean bizi direnak pixkanaka ezagutzen diren era berean, hemen ere inguruko biztanleak bizilagun egiten dira. Ezagutu eta zenbaiti izena ere jartzen zaie. Animaliak ez ditut oso gustuko eta ez diet jarraipen zehatza egiten; baina zenbait gogoko ditut. Bigararen buru gainean jarri eta adarren arteko intsektutxoak jatera ematen diren mikak, tarteka ardien bizkarrean ere aritzen dira, artile artean mokoka. Oso noizean behin ikusten dudan faisai goiztiarra. Intxaurretara etortzen den kattagorri familia. Etxe buelta garbitzen duten saguzarrak. Etxepean neu baino lehenagotik bizi den urubien leinua.

Landareena beste sagardotegiko bukoia da. Landareak hor ditugu, milaka eta milaka bizilagun inguruan. Geldirik, gustura asko bizitzen. Eta bizitza mordo hori da erakargarria, ikusgarria. Egunetik egunera aldatzen dena; eguneroko eguraldiaren nahikeriara, animalien igurtzietara eta koskadizoetara eta abar

ugarietara egokitzen dena. Hori dugu landareen lagunok alde: landareek ez dute ihes egin beharrik eta bere bizitza guztia agerian sortzen dute. Guztia, guzti-guztia ez; lurgainekoa. Hostoen kolorea aldatu, soildu, haizearekin dantzatu, udaberriko soineko berria jantzi, loretan harrotu, fruituak eskaini...

Lurgaineko landarea, guk ikusten duguna, eguzki panel soil bat da. Lurpean bizi da benetako landarea; begi bistan duguna baino askoz ere handiagoa. Gainekoaren betebehar nagusia da, argiarekin elikagaiak sortzea. Beste lan garrantzitsu bat ere badu: ugaltzea. Horretarako esporak emango ditu, baldin eta garoa bada eta gainontzekoek lorea, fruitua eta hazia. Elikagairik gabe, ordea ez dago ezer. Eguzki panela da, beraz oinarrizkoa. Bere kasa bizitzeko burujabetza emango dio. Beregaina da.

Landareon hirugarren ezaugarri nagusia etengabe haztea da. Urtea joan eta urtea etorri hazi egin behar da, den mendrena bada ere hazi, kimua luzatu. Hazkuntza amaitzen denean hiltzen hasten da.

Landareen hiru adierazle horiek markatuko dute bere egunerokoa. Eta neu txoratuta, bakoitzarena jarraitu baitezaket. Eta espaloi artekoetan zenbat dago hori ikusi ere ezin duena? Belar txikiena ere mehatxu iruditzen zaiona? Belarra hazten, zuhaitza luzatzen, lorea zabaltzen ikusi ezin duena? Gure herrian biribilgune batean orkidea naturalak loratzen dira udaberriero. Lotsagabeak! Zabaldu orduko makina hor dator, epaile, eta zast, lepo egiten die. Landareak hankapean, zera! Harrotu gabe! ●

“ZUHAITZEI EMAN DIEGU PROTAGONISMOA AURTENGO AGENDA-LIBURUAN”

GARAZI ZABALETA

Ikasturte hasiera kaotiko xamarra izaten da: lanera edo ikastetxeetara buelta dela, bilerak direla, baratzean egin beharreko negurako lanak direla… Ordena emateko tresna egokia izan daiteke agenda. Eta azken bi urteetan bezala, aurtengoan ere ez dute hutsik egin Jakoba Errekondok eta Antton Olariagak: *Landareak Lantzen* agenda-liburuaren hirugarren edizioa labetik atera berria dute ARGIArekin. Ohiko liburu dendetan eta ARGIako Azokan duzue eskuragarri jada… Mugi! Jakobarekin mintzatu gara:

***Landareak Lantzen* agenda liburuaren hirugarren alea duzue aurtengoa. Zer du lehengotik eta zer berri?**
Aurreko urtekoak bezalaxe asteko lanak dira bertan agertzen direnak, zikloka antolatuta. Ilargiaren informazioa dakar agendak, eta hilabetero ilgoran eta ilbeheran zein lan egin behar diren azaltzen du lau ataletan banatuta: baratzea, fruitu arbolak, lorategia edo balkoia eta basoa. Liburuaren bukaeran, berriz, baratzegintzari buruzko informazio orokorra dago: landareak nola elkartu, zein zeinen ondoren jarri, ongarriak eta simaurrak nola erabili, luarra edo konposta egiteko sistema erraza nola egin… Zein da aurtengo berrikuntza? Bada, agenda zuhaitzei eskainita dagoela. Hilabete bakoitzaren sarrera gisa zuhaitz bat aipatzen da eta zuhaitz horren zurarekin zer egiten den, zertarako erabiltzen den azaltzen da.

Zuhaitzena da nobedadea beraz, eta egurrean zentratua egonen da.
Bai, hori da. Antton Olariagak egin dituen zuhaitzen marrazkiak ikaragarriak dira: bakoitzaren irudiak egin ditu ondoan zuhaitz horren erabilera azaltzen duen marrazkiekin.

Nori zuzenduta dago agenda liburua?
Lau atal horietan lan egiten duen edonorentzako da aproposa: basoan makilak bota nahi dituenarentzat, su egurra noiz bota behar den jakin nahi duenarentzat, lorategian loreekin adaxkak edo haziak noiz egin, balkoietako landareekin lanak noiz egin… Hori guztia jakin nahi duen edonorentzat. Baita baratzean ari den jendearentzat ere: zer erein, zer landatu hilabete bakoitzean… Orokorrean landareekin lan egiten duen edonorentzat dago prestatua agenda liburua. Horrexegatik deitzen da *Landareak Lantzen*!



DANI BLANCO

Beste behin Antton Olariaga marrazkilaria izan duzu bidelagun.
Bai, ederki moldatzen gara eta bere marrazkiak oso ongi egokitzen dira landareetara. Lanak egiteko moduak pertsonekin nola adierazi ere ongi daki… Eta zer esan hilabeteroko zuhaitzen portada horietaz? Bakoitza koadro batean sartzeko modukoa da! ●

ASTEKO PORTADA HAUTATUA

1969ko uztailaren 27a

Zeruko
ARGIA
ILLARGIA
GIZONAREN MENDE
Egun Aundirarte...!

KOLDO IZAGIRRE

Bitxia izan zen eta ezohikoa guztiz *El Diario Vasco*-k Euskaltzaindiaren bilera baten albiste barruan agertu zuen komentarioa, Joaquin Ormaechea batek sinaturik, erdaraz: "Hogeita sei urte baino ez zuen arren, lana gogor egina zen euskararen alde. *Zeruko Argia* asterokoaren Nazioarteko Politika atalaren zuzendaria zen, ezagutza sakona eta sintesi ahalmen handia erakutsiz gai horretan. Zaila izanen da Rikardo Arregik utziko duen hutsunea betetzea, zeren, gaurko gazteriaren dohainik ederrena erakutsiz, alegia, bere idealetara osoro emana izatea, buru-belarri egin baitzuen lan gogoz eta zientifikoki euskararen alde". Ausardia eta sentsibilitate berria islatzen zuten gazteak bizirik nahi zituen, eraikitzaile, kulturarekin harremanen bat zeukan jendeak. *El Diario Vasco*-k publika ez zezakeena *Zeruko Argia*-k ekarri zuen, noski, Manuel Lekuona, Carlos Santamaria, Joan Mari Torrealdai eta Juan San Martinen artikuluetan, baina batez ere Xabier Gereñoren ohar labur batean: "Bere arimaren alde, mezak eskainiko dira. Bere izenaren omenez, hitzaldiak antolatuko dira. Baina lurrean, odolez beteta dagoen bandera hori barriro goira jaso arte, ez dogu Rikardo Arregi benetan ohoratuko".

Ilargia gizon zuriaren mende? Ordurako Martera iritsiak ziren beltzak, gizon zein emakume, justiziazko zibilizazio bat antolatzeko (*The Other Foot*, Ray Bradbury, 1951). ●

ARGIAK 100 URTE

ANGEL ZELAIETA GISASOLA

Bizitza kazetaritzari emana

MIREN OSA GALDONA

Anaitasuna aldizkariari lotu izan da Angel Zelaieta Gisasolaren izena, baina *Zeruko Argia*n sinatu zituen lehen artikuluak. Berarekin izan gara *Zeruko Argia*ko ibilerez hitz egiteko. Derioko seminarioan apaiz izateko ikasketak egiten ari zen kolaboratzaile moduan lehen urratsak eman zituenean. Zerutiarra zen Argia gertu sentituko zuen, baina baziren beste arrazoi batzuk ere idazteari ekiteko: 1968an, Galdakaoko Bengoetxe auzoan meza ematen ari zela "Txabi Etxebarrieta hil zutela aipatu nuen nire hitzartzean, injustizia galanta zela esanez. Bat batean andre bat altxatu egin zen, eta oihuka hasi zitzaidan, elizan halakoak esatea bekatua zegola, besteak beste. *Zeruko Argia*n garai hartan sinadura ezaguna zen *Basajaun*ek ni defendatuz idatzi zuen". Artikulua lehengusuari erakutsi, eta hark *Zeruko Argia*n idazteko aukera aipatu zion. Bi aldiz pentsatu gabe, lehen artikulua bidali zuen.

1966an Etxebarri herriko San Antonio auzora bidali zuten apaiz, Espainiatik iritsitako langilez betea zegoen ingurura. Seminarioan euskal giroan murgilduta zeuden gazteak eremu erdaldunetara bidali zituzten, "zigor modura" dio Zelaietak, euskara sentitu ere egiten ez zen bizitokiraetara. Zelaietak, ordea, fede handia zuen auzo haien euskalduntzean, eta asko izan ziren *Zeruko Argia*n auzokide hauen defentsan idatzi zituen artikuluak. "Maketo" eta antzerakoak baino entzuten ez zituztenen ahotsa izan zen: "Bertan bizi ziren gehienak Extremaduratik iritsitakoak ziren. Lanagatik etxea atzean utzi zuten pertsonak. Euskaraz ikasiko zutela sinetsita nengoen, auzoa ezagutzen nuen, eta beharra sentitzen nuen apaiz modura bada ere beraien alde idazteko". Artikuluok pisua izan zuten Zelaieta *Anaitasuna*ko zuzendari izendatzerakoan.

1969-1972 urte bitartetan izan zen zuzendari. "Lana, lana eta lana" besterik ez zuten egin aldizkaria maiztasunez kaleratzeko, baina gustuko lekuan aldaparik ez: Galdakaoko Bengoetxe auzoan zegoen Ideal inprentan botatzen zuten aldizkaria, eta horiek ditu oroitzapenik goxoenak.

DANI BLANCO

"Presioagatik gaizki pasatzen genuen, baina finean harreman oso ona genuen guztion artean".

Euskara batuaren auzia pil-pilean zegoen zuzendari izan zen bitartean, eta argi du *Anaitasuna*k nori esker hartu zuen euskara batuaren aldeko jarrera: Imanol Berriatua. "Haren eskuetatik pasatzen zen idazten genuen guztia. Ikaragarria zen! Hasieran deigarria egiten zitzaigun nola zuzentzen zuen, h-ak erabiltzen zituelako gehien bat. Lan handia egin zuen euskara batuaren alde, eta inork gutxik aitortu izan dio". Albisteak ziren *Anaitasuna*ren bizkar hezurra. Ekitaldi eta gertakarien berri ematen zien irakurlei, baita Francoren diktadurak zentsuratutakoak seinalatu ere: "Adibidez, kantaldi bat suspenditzen zutenean, guk esan egiten genuen, zentsuratu egin zutela adieraziz. Isun bat baino gehiago jaso izan genuen horregatik".

*Zeruko Argia*rekin denboran bat egin bazuten ere, aldizkari bakoitzak bere publikoa zuela dio Zelaietak, ez zutela "inongo lehiakortasunik".

Eskerrik asko euskal prentsari emandako artikulu eder horiengatik. Urte askotarako, Angel! ●

HEDOI ETXARTEREN "FAXISMOA HEMEN ETA ORAIN" HITZALDIA

Ni ez naiz faxista

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Ni ez naiz arrazista, BAINA..., ni ez naiz matxista, BAINA..., ni ez naiz klasista, BAINA..., ni ez naiz homofoboa, BAINA... Ai, nola ateratzen zaizkigun barru-barrutik esaldi horiek. Ai, nola ateratzen zaigun barru-barruan dugun zornea. Zer diskurtso ezkutatzen da esaldi hauen atzean? Zein oinarriren gainean, zerk bultzatuta eraikitzen dugu? Zer da sortzen, onartzen eta normalizatzen ari garena?

Kapitalismo basatian bizi gara, bere zurrunbiloak zurrupatu gaitu eta denok gaude lehen eta bigarren mailako jendearen joko ankerrean sartuta. Sistema neoliberalak berarekin dakar faxismoa. Bertolt Brecht-en ideia klasiko bat gogorarazi dit Hedoi Etxartek: Faxismoa oso zaharra den eta oso berria den zerbait dela. Gure artean dagoela kapitalismoan bizi garelako. Faxismoa kapitalismoaren fase histerikoa delako.

Zertara datorren artikulu honetan Hedoi Etxarteren erreferentzia, galdetuko duzu, oraindik ere nora ailegatu nahi dudan aztarrenik izan gabe, akaso. *Faxismoa hemen eta orain* hitzaldia eskainiko duelako Hernanin, ARGIAk bere mendeurreneko ekitaldien baitan antolatuta, urriaren 9an.

Bilbon Rosa Luxemburgen lagunek eta IPESek antolatu zuen lehenik, eta Azpeitian ARGIAk eta Elkar Ekin elkarteak elkarlanean. Orain hitzaldia Hernanira iritsiko da. Gaiari lotuta aktualitateak eskaintzen dituen adibideak identifikatuko dizkio entzuleari eta, tamalez, Azpeitian maiatzean emandako hitzalditik hona mundu kapitalistak eskainitako adibide gehiago bildu ahal izan ditu. "Tamalez astero dauzkagu notiziak. Sistema neoliberala gero eta gupidagabeagoa da bere fronte guztietan. Eta bere txikian, klasismoa, xenofobia eta misoginia oso zabalduak daude, normaltasun karta bat hartu dute Hego Euskal Herrian ere", adierazi digu Etxartek.

Hizlariari berari utzi diot jendearengana zuzentzen: "Bere inguruan pobreekiko, emakumeekiko, etorkinekiko, sindikatuekiko ala feministekiko irainak eta kritika gupidagabeak entzun eta kezkatzen bada horri buruz jardungo dugula azaldu nahiko nioke. Faxismoak Euskal Herrian irabazi zuen 36ko gerran eta II. Mundu Gerran, besteak beste, herriz herri izan zuen babesarengatik. Eta ez gara mamu horretaz libratuko kapitalismoa gainditu arte".

Ez ahaztu: Pello Zubiria kazetariak moderatu eta Hedoi Etxartek mamituko duen hitzaldia urriak 9an izango da, asteazkena, arratsaldeko 19:00etan Biteri Kultur Etxean. ●

AZOKA
AZOKA.ARGIA.EUS

NOLA DA
MUSUTRUK?

Ostegunetan 10:00etan jartzen ditugu *ARGIA Jendea*-rentzat musutruk dauden gaiak eta zozketarik gabe, bizkorren eramaten dituenarentzat dira. Ondasunak banatu ditzagun, urtean musutruk gai bat hartzea eskatzen da.

BIDEA URRATU DUTEN BERTSOAK
56 orrialdeko bertso sorta

Urrea balio duen urdina

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

Erroma, 1501. Michelangelo Buonarrotti (1475-1564) artistak hiritik alde egin zuen Florentziara itzultzeko eta han utzi zuen, bukatu gabe, *Ehorzketa santua* margolana. Litekeena da hiriz aldatzeak berak eragin izana etena, baina lan bukatugabeari begiratu bat emanda nahiko nabarmena da kolore bat falta duela: urdina. Garai hartako artistentzat kolorerik preziatuena –eta garestiena– itsas urdina zen, eta margolan erlijiosoetan elementu bereziak koloreztatzeko erabiltzen zuten, nagusiki Jesukristoren eta Ama Birjinaren jantzietarako. Horregatik, hipotesi zabalduenak dio Michelangelo gazteak ez zuela itsas urdina ordaintzeko dirurik, baina ez zuela urdin merkeagorik erabili nahi eta horregatik utzi zuela margolana bukatu gabe.

Rafael (1483-1520) margolariak irtenbide merkeagoa erabiltzen zuen: oinarrizko geruza urdinak azurita arrunt merkeagoaz margotzen zituen eta itsas urdina azken geruza eta ukituetan xahutzen zuen soilik. Baina Michelangelok eta beste artista batzuek ez zuten halako neurririk hartu nahi eta, esaterako Jan Vermeer (1632-1675) herbeheretarrak familia osoa zorpetu zuen behin itsas urdina eskuratzeko. Baziren itsas urdina isilpean anil ohikoagoaz ordezkatzen ahalegindu ziren artistak ere, baina engainua azaleratzeak margolariaren izen ona galtzea zekarren.

NATIONAL GALLERY

MICHELANGELOREN *EHORZKETA SANTUA* BUKATU GABEA.

Itsas urdina ez zetorren itsasotik, egungo Afganistango Sar-i Sang meatzetik baizik. XVIII. mendea bitartean, huraxe izan zen lapis lazulia, itsas urdinaren osagai nagusia, lortzeko iturri bakarra. Lehengaiaren urritasunak produktua garestitzen zuen, baina baita pigmentua lortzeko prozesu luze eta nekezak ere. Lapis lazulia xehe-xehe birrintzen zuten hauts fina lortu arte; hautsa argizari urtuarekin, olioekin eta erretxinarekin nahasten zen; bukatzeko, nahastea lixiba disoluzio batez oratuta lortzen zen produktua. Pigmentua oso kantitate txikitan ekoizten zen eta, ondorioz, itsas urdina urrea baino garestiagoa zen.

1824an Frantziako Société d'Encouragement-ek 6.000 liberako ordainsaria eskaini zuen itsas urdina ordezkatuko zuen pigmentu sintetikoa asmatzen zuenarentzat. Jean-Baptiste Guimet kimikari frantziarrak eta Christian Gmelin ikerlari alemaniarrak aurkeztu zituzten beren margo sintetikoak eta, azkenean, frantziarrari eman zioten saria. "Frantziako" itsas urdina jaio zen eta "betiko" itsas urdinarenak egin zuen. Baina zenbaitentzat ez zen sekula berdina izango. Itsas urdin naturala mineralez josita dago: kaltzita, pirita, mika... Metakin horien eraginez, argia modu anitzetan errefraktatzen da eta, hala, pintzelkadak beti dira desberdinak, beti bakarrak. ●

DOUG STERN

Maien urdinak ez du misteriorik

Maientzat kolore urdina garrantzitsua zen; besteak beste, sakrifizioarekin lotuta zegoen, eta biktimak goitik behera urdinez estaltzen zituzten hil baino lehen. Maien urdin berezi horren jatorria argitu gabeko misterioa izan da mende luzez mendebaldekoentzat, beharbada itsas urdinarekiko obsesioak elikatuta. Baina 2010ean Dean Arnold antropologoak maiek urdina lortzeko erabiltzen zuten teknika aurkitu zuen: indigoa eta paligorskita nahasten zituzten. 2017ko ikerlan batek argitu zuen paligorskita nondik ateratzen zuten: Chichen Itzako urdina Salacuim meatzetik lortzen zuten eta Palenquekoa, aldiz, Ticul meatzetik. Meatzeak hirietatik gertu zeuden eta ez zen teknologia aurreraturik behar minerala erauzteko. Hala, urdin maia eder hura erraz eta merke ekoizten zuten. ●

EGILEA | **ANA ZAMBRANO**

Hitz gezidunak

Begira / Esnea ematen duen abere
Pertsonaiaren izena / Eskumen
Erabateko, bete-bete
Suari dariona / Kontsonante errepikatuta
Nafarroako urtegia / Errepikatuz, loguraren eulia
Soro / Pertsonaiaren abizena
Pinpirinak, galaiak / Dar-dar eginez
Jazarpen / Zakur
Ospe, omen / Merkatari
Samoako herritar / Litroa
Urratu aditzaren infinitiboa / Zuku
Letra izena
Mongoliari dagokion domeinua / Eratu
501 erromatar zenbakiz / Bakoitzari zazpi
Lepotik zintzilikatuz, hil
Ukan / Maindirea
Aholku / Ez eme
Roentgen / Eskuaren barneko alde
Barazki mota (pluralean) / Lepoa
Ziburuko rap taldea / Nahaspila, nahasmahas
Naizen hau / Izaera on
Ospakizun, festa / 1501 erromatar zenbakiz
Sufrea / Hasi aditzaren infinitiboa
Poza bokal barik / Putre
Hihaur
Hodrogenoa / Kontsonante bikoitza
Karta-joko / Hots ozen
Harribitxi / 500 erromatar zenbakiz
Ahalegindu

DANI BLANCO

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

			3					
9				8		6		
		2	7		6		3	1
							1	
8	6		9		1		5	3
	9							
5	3		4		9	7		
		9		3				2
					8			

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Erraz sutzen dena
2. Errape
3. Ontzi estua eta arina
4. Automobilean
5. Izatea

EBAZPENAK

5X5:
1. SUKOI
2. UGATZ
3. KANOA
4. OTOAN
5. IZANA

6	7	8	3	1	4	5	2	9
9	1	3	5	8	2	6	7	4
4	5	2	7	9	6	8	3	1
3	2	4	8	5	7	9	1	6
8	6	7	9	4	1	2	5	3
1	9	5	2	6	3	4	8	7
5	3	1	4	2	9	7	6	8
7	8	9	6	3	5	1	4	2
2	4	6	1	7	8	3	9	5

	B		M		P		K		E		A		L
B	E	H	I		E	S	E	T	S	A	L	D	I
	H	E	R	O	T	S		S	A	M	O	A	R
S	A	L	E	R	O	S	L	E		U	R	R	A
		M	N						U	R		D	I
E	F	E								I	Z	A	N
	O	N	U						I	Z	A	R	A
A	R		R							A	Z	A	K
	M	A	K		N		J		S		P	Z	
N	A	H	A	S	I	M	A	H	A	S	I		H
	T	U	T	E		D	I	A	M	A	N	T	E
D	U	R	U	N	D	I		S	A	I	A	T	U

ARGIAren irakurle askok ere Gran Hermano ikusiko dute”

Antton Telleria eta Julen Telleria

Gure Kasa telebista programako aurkezleak eta Gaztea irratiko *Dida* saioko esatariak

LANDER ARRETXEA BEREZIARTUA
DANI BLANCO

Urte gutxian igaro dira Telleria anaiak telebistaren aurreko sofan jolasean aritzetik, plato batean elkarren alboan esertzera. *Gure Kasa*-ko aurkezle bikotea osatuta, ETBren programazioan leku propioa egin dute. Gaztea irratian ere aritzen dira, *Dida* saioaren gidari. Aitortzen dutenez, barrutik ezagutu aurretik errezeloz begiratzen zioten orain eurek egiten duten gisako edukiari. Iritziz aldatu badute ez da haien lana defendatzea tokatzen zaielako soilik: Euskal Herriko gazteen hizkuntza eta kontsumo joerak ezagutzeak begiak ireki dizkiela diote.

Telebista barrutik ezagutzen ez dugunoi kosta egiten zaigu saio baten atzean dagoen hori guztia irudikatzea. Zenbat jenderen lana dago *Gure Kasa*ren atzean?

Julen Telleria: Ekoiztetxeko lan-taldean 20 lagun inguru izango gara. Horrez gain lan-talde teknikoa dago, ETBko langileek osatzen dutena. Denera 60 buru behar dira, gutxi gorabehera, saioa egiteko. Zentzu horretan, Antton eta bion lana oso erosoa da. Gidoiak idatzita daude eta dena prest dago gu iristen garenerako.

Antton Telleria: Guk egiten duguna da atzeko lan hori guztia borobildu. Guretik asko jartzen dugu programa grabatzen den ordubete horretan; baina lan zailena egina dago gu iristerako. 60 lagun gaude lanean eta zorionak Aitziber Garmendiak eta hirurok jasotzen ditugu. Kontziente bagara behintzat.

J. T.: Jendeak jakingo balu zein modutara egiten den lan, ulerkorragoak izango lirateke beharbada. Errealitatea nahiko garratza da. Lan egiteko denbora eta baliabideak oso murritzak dira.

A. T.: Guk ere egin dugu gauza bera: kritikak egiten dituzunean ez diozu atzean dagoenari erreparatzen. Baina ikusten duzunean hor atzean lan-talde humano bat dagoela, zu bezalako pertsonak direla hori guztia egiten dutenak, ikusten duzunean bertako jendearen burukominak zeintzuk diren…

Gogorra da telebistarako lan egitea?

J.T.: Telebista, ETBn behintzat, presaka egiten da. Giza-baliabideei dagokienez gutxi dago, gidoietan bereziki. Buenafuenteren saioa bisitatzen izan da Antton, eta han adibidez, egunero biltzen dira gidoilariak, ideiak botatzeko bakarrik. Gurean ez dago halakorik. Hiru gidoilari ditugu, eta haietako bat lanaldi erdian. Haien artean lau saio idatzi behar dituzte astero. Azkenerako fabrikan torlojuak egitea bezala: atera behar da lana aurrera, eta ez dago luzitzeko beharko litzatekeen denbora hori.

Ideiak falta direla ere esaten da.

A.T.: Falta dena da bertan denbora askoz lanean ariko den gidoigile harrobi bat. Jendeak alde egiten du ez direlako behar bezala zaintzen. Eta klabea da: gidoilariak behar dira, eta gero beste guztia. Ez dira espazioak eskaintzen jolasteko, gauzak probatzeko, ikasteko… Ez da batere arriskurik hartzen zentzu horretan. Jendeari egiten utzi beharko litzaioke. Gidoilariak gustura ari ez badira entretenimendua egitea oso zaila da, eta zer esanik ez umorea.

J.T.: Gaur egun, unibertsitate eta formazio zentroei esker, bideoak editatzen dakien jende oso ona dago. Baina idazterako garaian, eta euskaraz, ez dago gidoilari industriarik. Nik uste hor bai unibertsitateek eta bai ETBk badutela ardura bat. Kezkatu gaitezen gehiago horretaz: telefono batekin ia edozer grabatu dezakezu, baina idaztea behar da, ideiak.

BASQUE

Barkaberagoak gara beste hizkuntzetan egiten diren edukiekin, euskarazkoekin baino?

A.T.: Gure gurasoek edo osaba-izebek borrokatu behar izan zuten euskaraz irakastearen alde. Horrek zamatxo bat ere utzi digu. Badirudi euskara ez dela tresna txorakeriatan aritzeko, ezin dela nolanahi erabili. Gaztelaniaz aldiz, ez dutelako zapalkuntza hori jasan behar izan, edozer eta edonola egiten dute, konplexurik gabe.

J.T.: Oso kezkatuta gaude "gure" edukiak kontrolatzeaz, eta beste hizkuntza batzuetan egiten direnean ez zaizkigu axola. Baina datuak eskuan, beste horiek dira Euskal Herrian ikusten diren saioak. Urtzi Urkizu kazetaria jarraitzen duenak badaki Telecincok eta Espainiako selekzioak zein ikusle datu ematen dituzten. ARGIA irakurtzen dutenen artean ere, askok *Gran Hermano* ikusiko dute. Euskaraz ere behar dugu zaborra, gero norberak erabakiko du zer ikusiko duen. Guk nerabetan bagenituen euskal idoloak, baina orain, Youtube eta Instagramen garaian, gaztetxoek idoloak kanpoan bilatzen dituzte. Zeintzuk eta zergatik diren, hori ere gai potoloa da, baina bada lorpen txiki bat sikiera euskarako batzuk sortzen asmatzea.

Gaztean egiten duzue bide hori, ez polemikarik gabe.

J.T.: Gaztean Jon Gotzon daukagu, gaztelaniazko esaldiak erabiltzen dituena. Eta jende batek esaten digu: "Oso gustura entzuten dut zuen saioa, baina ni euskalduna naiz eta ez dut zertan jasan halakorik euskarazko kate batean". Beharbada egia da berak ez duela zertan jasan, baina ni ETBn hasi nintzenean jabetu nintzen euskal eremuan bizi garenok uste dugunaren oso bestelakoa dela errealitatea. Ezin gara garbizalekerian gotortu.

A.T.: Hori guztia, faktore linguistiko batetik, baina gehiago ere badaude. *La Vida Moderna* irratsaioak adibidez sekulako arrakasta du, baina Espainia osoa edo espainiar hiztun denak hartuta, ez dira hegemonikoak. Jendeari, gehienbat, ofentsiboa eta zakarra egiten zaio umore hori, baina nola asko diren, badago nahikoa masa kritiko umore horrek bidea egin dezan, baita estadio bat betetzeko ere. Euskal Herrira etorrita, filtro horiek guztiak pasata, oso kopuru txikia geratzen da. Nahikoa ez, akaso, halako saio batek bidea egiteko. Horregatik uste dut toleranteagoak izan beharko genukeela, bestela orokorra eta zuria dena bakarrik egin daitekeelako. Hedabide publikoetatik bai behintzat.

> "Osaba enrollatuaren paperean gabiltza gazteengana iritsi nahi dugun aldiro"
>
> Antton Telleria

ETB kate publikoa izatea muga da, zentzu horretan?

J.T.: Kasu askotan bai. Gu ta Gutarrak egiten nuenean ni aurkezle besterik ez nintzen. Baina badakit bagenuela haragia, odola, sexua... Gauza asko, publikatuz gero, askoz ere arrakasta eta audientzia datu hobeak emango zizkigutenak. Baina telebista publiko bat da eta ez genituen erabili. Ona edo txarra den ez dakit, baina gauza asko mugatzen ditu horrek.

A.T.: Nik jarraitzen ditudan komedianteek oso argi dute ez daudela hor inor hezteko. Ardura hori beste batzuena dela: irakasleena, unibertsitateena, erakundeena, gurasoena... Umoregileak hor daude, barre eginarazteko, jolasteko, inkomodatzeko... Ni ez naiz sartuko okerrak iruditzen zaizkidan bideetatik, baina gurean, norberaren muga horiez gain, beste asko ere badatozkigu kanpotik. Autozentsuratik ere badu. Saioan gertatu izan zaigu: zerbait bururatu eta zuzendariak esatea: "Ez, badaezpada ez esan".

J.T.: Bada arazoa euskaraz daukagun telebista generiko bakarra publikoa izatea. Bi funtzioak bete behar dituelako, publikoarena eta pribatuarena. Biak izango bagenitu, pribatuak beste tonu bat baimenduko luke, beste eduki mota bat, beste apustu batzuk ez hain orokorrak...

A.T.: Gazteon artean arrakasta duten formatu gehienak plataforma pribatuenak dira. Hor ere enpresek mugak jartzen dituzte, noski. Edo publizitatea jartzen duenak bestela. Baina arriskatzeko prest daude, eta horri esker publiko bat dute. Nola iritsiko gara gazteengana, ezin badugu gazteek esaten dutena esan? Ezin badugu gazteek egiten dutena egin? Osaba enrollatuaren paperean gabiltza gazteengana iritsi nahi dugun aldiro, eta ez behar lukeen bezala, parez pare.

Zuen lanean audientziek pisua izaten jarraitzen dute gaur egun? Goizero begiratzen dituzue?

J.T.: Behar baino gehiago. Baina audientzia ez da ahaztu behar. Bilatu behar da oreka bat oso zaila dena. Gure kasuan adibidez, nahiko zenbaki onak izan ditugu. Baina badira programa asko hirugarren asterako bidean geratzen direnak. Audientziak baldintzatu behar du? Baita ere, baina akaso hainbeste ez.

A.T.: Paradoxa dena da horretan badugula kate pribatu baten antza. Publikoa

bagara, akaso tokatzen zaigu halako lasaitasun bat ematea saioei, epe luzeagoko estrategia bat izatea…

Sareko ikustaldiei ere nahikoa erreparatzen zaie? Kontuan hartuta ETBko ikusleen batez besteko adina 64 urtekoa dela, gazteei bideratutako proiektu batzuk ia hilda jaiotzen dira hala ez bada.

J.T.: Horretan ere oso berandu goaz. Nahieran plataforma behar da, baina Youtube gehiago baliatu behar genuke. Edukiak sortzen ari gara, baina ez dira behar bezala zabaltzen.

A.T.: Hor badago beste morrontza bat, erakunde publikoa izateagatik-edo. Hala esaten digute: "Behartzen gaituzte webgune honetatik hainbeste klik izatera, edo diru-laguntza jasotzeko behar dugu hala izatea"…

J.T.: Gauza bat da edukia eta beste bat kanala, eta edukiaz asko eztabaidatu dezakegu, baina edukia helarazteko moduetan berandu goaz. Instagram eta Youtube: hor daude ikusleak eta hor punta-puntan aritu beharra dago. BBC Radioko zuzendariak esana da: jada ez du balio publikoa gurera erakartzeak, gu mugitu behar gara haiek aritzen diren lekuetara. Gaztea irratiak adibidez, dagoeneko egiten du lan hori.

Zuek bi aldeetan egiten duzue lan. Zergatik da arrakastatsuagoa euskarazko irratia telebista baino?

J.T.: Badu zerikusia enpresa egiturarekin. Euskadi Irratia ez dut hain ondo ezagutzen, baina guk adibidez, askatasun ia erabatekoa dugu, telebistan ez bezala. Bost kide bagara programa batean, nahi duguna egiten dugu nahi dugun eran. Unean bertan, eta inorekin kontsultatu gabe. Enpresa egitura dela-eta, telebistan askoz ere burokratikoagoa da dena. Nik uste horregatik goazela azkarrago irratian. Telebista munstro askoz handiagoa da, esku gehiago daude, eta pausoak askoz motelagoak dira. Pentsa, lortu dugu euskarazko irrati bat egiten gure ligako liderrak izatea. Hori gure arduradunak askotan esaten digu: irudika dezakegu ETB1 Telecincoren gainetik? Ezinezkoa dirudi. Irratiarekin lortu izan dugu.

Aipatu dugu lehenago ere ETB1 hurbildu dela Espainiako eredu arrakastatsuetara, eta akaso Gaztea ere bai. Kanpotik badirudi joera horren aurpegi atsegina zaretela zuek: bi gazte tolosar, euskaltzaleak, euskal komunitateko kide…

J.T.: Guri gertatzen zaiguna da oraindik ere gazteak garela, badugula indarra. ETBn jende asko dago egur asko jaso duena, bizkarra berotua duena eta euskal komunitatearekin desenkantatuta dagoena. Gu oraindik sano gaude, eta prest gaude arrisku horiek hartzeko. Egiten dugun lanagatik oso baloratuak sentitu gara, baina ez da erraza ETBn lan egin eta euskal komunitatearen parte sentitzea.

A.T.: Egia da, bai. Bat-batean hor gaude gu, bi tipo, Belauntzako amona Mariaren bilobak, euskaraz egin dugunak beti, Durangoko Azokara joaten garenak… Eta orduan badugu halako permisibidade bat: guri barkatzen dizkigute agian beste batzuei barkatuko ez lizkieketen gauza batzuk. Baina gogorra da ikustea jendeak nolabait bizitza barkatzen digula nondik gatozen ikusita. Beste norbaiten lekuan jartzen naiz, eta nire gurasoak erdaldunak balira, beste erreferentzia batzuk balituzte…

J.T.: Gure ogibidean badago jendea hori batere inporta ez zaiona, baina ez dira horregatik pertsona txarrak. Oso profesional onak izan daitezke. Horiek denak gure komunitatetik kanpo uzten ditugu askotan, eta ez dakit justua den ere. Oinarrizkoa da hizkuntza erabiltzen jakitea, baina hortik aurrera, euskal mundua, edo munduaren zati bat, irekiagoa izan behar litzateke.

> **"Ez da erraza ETBn lan egin eta euskal komunitateko parte sentitzea"**
>
> Julen Telleria

***Gure Kasa*k, neurri batean, egiten du bi mundu uztartzeko ahalegin hori. Arina da formatua, dinamikoa, baina gonbidatu asko dira idazleak, zine zuzendariak…**

A.T.: *Gure Kasa*k egin duena izan da oso mundu konkretuko jendea hartu eta beste mundu batekin harremanean jarri. Eta ziur asko jende batek ezagutu ditu pertsona zoragarriak programari esker, kulturgileak eta abar.

Erreferente eta izen asko aipatu ditugu. Ia denak espainiarrak dira.

J.T.: Kulturalki, oro har, Hegoaldean denok gara oso espainiarrak. Onartu dezagun lehenbailehen hala dela. Ez dezagun pareta jo itsu-itsuan. Zailagoa iruditzen zait jendearengana iristea eta gertuko sentiaraztea zerbait zure burbuila propioa sortu nahian ari zarenean. Hobe da ukitzea kanpoko erreferentziak, baita espainiarrak ere, eta tartean sartzea beste eduki batzuk. Guretzat, gainera, lehenengo erronka da euskara oro har akademikoa eta arrotza zaien gazte guztiengan horiengan eragitea.

Espainiarrak bakarrik ez, aipatu ditugun erreferente guztiak gizonezkoak ere badira. Iruditzen zaizue gizonezko izanda errazagoa dela ETBn bidea egitea?

J.T.: Ez dut zuzenean pentsatu ea guk aukera gehiago izan dugun. Baina uste dut kezka hori badugula. Saiatzen gara parte hartzen dugun espazio guztietan emakumeak ere egongo direla bermatzen, orekatzen. Eta ikusi dut nola inguruan izan ditugun emakume asko gutxietsiak diren fisikoki erakargarriak direlako, adibidez; zuzenean jendeak jotzen duelako pentsatzera horregatik daudela hor eta ez haien gaitasunengatik.

A.T.: Komiko bat emakumea bada, hasten den momentutik bertatik askoz zorrotzagoa da jendea, edo gara. Espainiatik datorren moldean, zentzu horretan, nabaritu da aldaketa: badaude saioak soilik emakumeek gidatzen dituztenak ere, irratian zein telebistan. Guk Aitziber Garmendia dugu, adibidez, gure programan umorearen zentroa dena. Baina Aitziber izugarri ona da, oso altu jartzen du maila, eta berarekin alderatzen jarrita badirudi inork ez duela maila ematen.

J.T.: Eduki aldetik ere uste dut gure saioan zaintzen dugula. Iritsi izan gara programa moztera testuinguru deseroso bat sortu delako, edo iruditu zaigulako kutsu ez-aproposa hartu duela kolaboratzaile edo gonbidaturen batekin sortutako egoera batek. Ez guk bakarrik, saioko lan-taldeak batez ere.

A.T.: Beste alde batetik, telebista publikoa den neurrian, joera horiek aldatzeko ardura ETBrena ere bada. Eskatu dezatela aurkezleak emakumezkoak izatea, baita entretenimendu saioetan ere. Ekoiztetxeei ematen zaizkien eskaeren artean, izan dadila bat gehiago. ●

LIBURUA

Porrotez

MAITASUN KEINU BAT BESTERIK EZ
HASIER ARRAIZ
EREIN, 2019

IBAI ATUTXA ORDEÑANA

Onartuko dut: alaitasun indize nazionala jaitsi egin dut *Utriusque* argitaletxeak haren jardunari utzi zionetik. Falta nabaritu dut kritika literarioa sail propioarekin argitaratzen zuen etxearena. Imajinatuko duzu beraz, *Maitasun keinu bat besterik ez* dendako apalategietan ikusteak eragindako poza. Erein-ek argitaratu du Hasier Arraizen testua eta aitortzekoak dira bataren apustua eta bestearen lana. Kritika literarioa desesperazioz irakurtzen dugunok oraindik gabiltza liburua ospatzen.

Bozkario eta jolgorio artean badago elkarrizketarako tartea. Gramscik zioen originaltasuna aurretik esandakoekin elkarrizketan eta esandako horien berrantolaketan sortzen zela. Hain justu, horrelako gutxi ikusi dut *Maitasun*-en, hau da, elkarrizketa bota dut faltan.

Aztergai dituen literatura idazleez gain, hirurehun orritako analisiak, lau autore euskaldun aipatzen ditu. Hiru orri eta berrogeita hamar erreferentzia inguruko bibliografian gutxi iruditu zait. Euskaraz ez jakiteagatik euskal gaiez erdaratan argitaratzen dutenen artean arrunta da hori. Agerian uzten du gure debateetara iristea zail zaiela. *Maitasun*-ek bestalde, euskarazko sortzaileekin elkarrizketa ekidin duela dirudi.

Adibide bi. Euskarazko kritikariez liburuak dio, "gurea bezalako literatura sistema txiki batean [...] baten bat egongo ze[n] Kirmen Uriberen porrotaren zain". Herri mugimenduez: "Gizarte arazo zehatz baten aurrean sortzen dira, arazo hori konpon dadin jarduten dute eta arazoa konpontzean desagertzen dira".

Uste dut bi kasuetan elkarrizketa ekidin egin dela. Kritika negatiboen faltaz eta beharraz hitz egiten ari garen garaiotan, ez zait iruditzen kritikaria horrela erretratatzeak laguntzen duenik. Herri mugimenduei dagokienez mugimenduen arteko elkarrizketez eta aliantzez irakurri dugu ARGIAn bertan. Iruditu zait liburuak bi eztabaida zabal horiekin topo egin bai, baina ez duela asmatu kritikarien edo mugimenduen ahotsa ekartzen.

Guztiagatik, pentsamendu kritikoaren eztabaidak jarraitu nahi badituzu hankamotz geldi dakizuke *Maitasun*. Arraizen barne-mundua, filiak eta fobiak, literarioak eta politikoak ezagutzeko, hauxe da zure liburua. ●



KONTZERTUA

OLBEren denboraldi berria (eta disfrutagarria)

Jessica Pratt eta Leonor Bonilla sopranoak Lucia-ren rolean

LUCIA DI LAMMERMOOR / ANNA BOLENA
JESSICA PRATT, LEONOR BONILLA, ANGELA MEADE
BILBOKO EUSKALDUNA JAUREGIAN

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Udazkenarekin batera gure operaren denboraldi berria datorkigu. Urtero bezala, zain gaude, espektakulu totalaren dosiak jasotzeko prest. Aurten sei saio zinez interesgarriak izango ditugu Euskalduna Jauregian, eta denetatik aurkituko dugu: sarritan programatzen diren tituluak, konpositore famatuen harribitxi erdi-ezezagunak, mila aldiz gure artean izan ditugun abeslariak –arrakasta ziurtatuak–, lehenengo aldiz arituko diren abeslari mundialak eta bakarlari gazteak. Osagai hauekin dudarik gabe operazaleok badugu materiala disfrutatzeko.

Denboraldia urriaren 19an hasiko da klasiko batekin, *Lucia di Lammermoor* operarekin hain zuzen ere. Gaetano Donizettiren maisulan honetan pasioak eta gatazka politikoak nahasten dira obra liluragarria egiteko. Bi Lucia izango ditugu: alde batetik, Jessica Pratt estatubatuarra protagonista izango da lau saiotan, baina urriaren 26an Leonor Bonilla sopranoa (ibilbide zinez meteorikoa izan duena) arituko da Luciaren rola eginez.

Bigarren zita Giuseppe Verdirekin izango dugu, aldi honetan gutxitan aurkezten den *Jérusalem* lanarekin, azaroaren 16an. Jorge de León tenoreak debuta egingo du Bilbon opera honen pertsonaia protagonistarekin. Aukera izango du, bada, duen ospea frogatzeko.

2020an sartuko gara Richard Wagneren *Der fliegende Holländer* lan ederrarekin. Bagenuen gogoa Wagner bat ikusteko eta, beraz, gustoz entzungo dugu opera erromantiko hau, kontuan harturik Bryn Terfel baxu galestar paregabea entzuteko aukera izango dugula.

Otsailean harribitxi bat topatuko dugu, Giacomo Pucciniren western moduko lan kuriosoa, *La fanciulla del west* hain zuzen ere. Ez du zer ikusirik egile honen beste lan famatuekin (*La Bohème* edo *Madame Butterfly*), baina orkestrazio ederreko obra da eta interprete interesgarriak izango ditugu OLBEk eta Teatro di San Carlo di Napolik egindako produkzio honetan.

Apirilaren 25ean Rossiniren saio bikoitza izango dugu. Alde batetik *Giovanna d'Arco* opera, eta bestetik, *Stabat Mater* lan liluragarria.

Eta amaitzeko, Donizettiren *Anna Bolena* drama eskainiko digu OLBEk. Tudortaren istorio beltz honetan Angela Meade soprano amerikarra izango dugu protagonista. Gozagarria. ●

Periferiako auzoak, euskal zuzendariak eta emakume begiradak

Aitor Arregi, atzean Jose Mari Goenaga eta Jon Garaño dituela, Zinemaldiaren amaierako galan Zilarrezko Maskorra eskuan.

GORKA BEREZIARTUA MITXELENA · MONTSE CASTILLO / ZINEMALDIA

Bi irabazle garbi eta zenbait tendentzia utzi ditu Donostiako Zinemaldiaren 67. edizioko palmares ofizialak: *Pacificado* film brasildarrak ikusi genuenean aurreikus zitekeena baino sari handiagoak besapean hartuta egingo du etxerako bidea, Urrezko Maskorraz gain gizonezko aktore onenaren saria eta argazki onenarena ere eraman dituelako. Kutsu sozialeko zinemak aurreko edizioetan baino pisu handiagoa izan du 2019ko honetan, baina ikusle honi zalantza geratzen zaio Paxton Wintersen filma izan ote zen ildo horretako pelikulen artean gehien nabarmentzea merezi zuen alea. *Mano de obra* film mexikarrak, bere xumean, borobilagoa zirudien; baita *La hija de un ladrón*-ek bere gordinean ere; *Rocks* ahaztu gabe, pertsonalki iruditu baitzait ekoizpen britainiar hori izan dela langile-klaseko pertsonaiak protagonista zituztenen artean distira handienekoa.

Etxekoak izan dira aurtengo beste irabazle nagusiak, Sail Ofizialera ekarri duten filma Andaluzian girotuta eta gaztelaniaz errodatuta dagoen arren: Aitor Arregik, Jon Garañok eta Jose Mari Goenagak *La trinchera infinita*-rekin berretsi dute sasoi onean daudela eta gai direla zineman hainbestetan ikusi dugun gai bati, 1936ko Gerrari, ezohiko leku batetik begiratzeko. Zuzendaritza eta gidoi onenaren sariez gain, euskal zinemarena ere irabazi dute eta Urrezko Maskorra lortu izan balute ere, ez dut uste inor harrituko zenik. Nola aldatu diren gauzak: duela bost urte euskal zuzendari batek sinatutako pelikularen bat Zinemaldiko lehiaketan sartzea bera zen notizia; langa hori gainditu izana Moriarti etxekoen meritua da neurri handi batean.

Film zehatzetatik harago, aurtengo Sail Ofiziala emakumezko aktoreena izan da. Hainbeste, ezen kategoria horretan bi Zilarrezko Maskor banatu behar izan dituzten: Greta Fernandezek eta Nina Hossek askoren arreta deitu dute, Bartzelonako periferiako auzoetan biziraun nahian ari den ama gazte baten eta biolin irakasle frustratu baten larruan sartuta. Kontsentsu orokorra lortu duen saririk bada, hau izan dela esango nuke.

Ez da aktoreen lan onera mugatzen den zerbait, gainera. Begiratu epaimahaiaren sari bereziari ere: *Proxima* astronautei buruzko pelikula da, baina irakurketa feminista nabarmena daukan lana izateak bihurtzen du berezi. Edo begiratu saririk gabe geratu arren, lehiaketan ikusi ditugun beste pelikula batzuei: *Vendrá la muerte y tendrá tus ojos* argentinarrak lesbiana bikote bat du protagonista eta zaintzak, afektuek, kontakizun publikotik kanpo geratu izan diren gauza horiek hartzen dute protagonismoa. Huts egiten duen filma izan arren, *The Other Lamb*-ek ere patriarkatuaren aurkako alegatua izan nahi du. Laburbilduz, emakume begirada nabarmenago ikusi dugu azken urteekin konparatuta.

Langile-klaseko protagonistak dituzten istorioak, euskal zuzendarien lanak, betaurreko moredun filmak... Zinemaldiak gauza kritikagarri asko izango ditu eta beti egongo da zer hobetua, noski. Baina aurtengo edizioaren ondoren festibalaren kontra jardun nahi duenak, aurrena pintzel fin-fin bat erosi beharko du, orain arte erabili duen brotxa lodiak programazio honen aurrean ez baitu balio. ●

Sua eta amatasuna

AINHOA GUTIÉRREZ DEL POZO ZINEMALDIA

Sail Ofizialetik kanpoko filmetan sua izan da errepikatu den elementuetako bat, piromaniarekin lotuta *O que arde* lanean, eta istripu gisa planteatuta *Ema* film txiletarrean. Oliver Laxeren pelikularen kasuan sua koadro barnean sartzen da; Pablo Larrainenean, aitzitik, koadroz kanpo. Bi kasuetan du, halere, gatazka nagusiarekin zerikusi zuzena gaiak. Sua bezalako objektu estetikoak erakargarri bihurtzen du irudia zinematografikoki pentsatuta. Makroegiturak eta hauen inguruarekiko harremanak ere garatu dira film batean baino gehiagotan. Batetik, *Urpean lurra* lanak Itoizeko urtegiaren aurkako borroka bizi izan zutenen memoria eta ametsak esploratzen ditu. Zabaltegi-Tabakalera sailak hartu duen *Giraffe* filmak Danimarka eta Alemania lotuko zituen tunela du ardatz. *Le milieu de l'horizon* lanak, berriz, orokorragoa den lurra ustiatzeko era ezinezkoez eta landako bizimodu gero eta zailagoaz hitz egin digu.

Nolanahi ere, amatasuna, edo guraso eta seme-alaben arteko harremana izan da sail gehienetan errepikatu den gaia. *Lucy + Linn* filmak amatasun normatiboaren eta arduragabearen arteko kontrastea egiten du, esperientzia honek emakumeen bizitzan eragiten dituen ertzak arakatuz. Hari beretik, lehenago aipatutako *Ema* filmeko protagonistak, ama eredu hegemonikoan kabitu ezinda, modu propioa bilatzen du familia osatzeko. *Ficción privada* lanean Andrés Di Tellak gurasoak omentzen ditu, elkarri idatzi zizkioten eskutitzak berreskuratu eta zuten harremana ulertzen saiatuz. *Mateoren ama* laburmetraiak ama eta semearen arteko konplizitateaz hitz egiten du, baita elkar ulertzeko zailtasunaz ere. *Diu jiu tian chang* filmean galdu duten umearen hutsunea betetzen saiatzen diren gurasoak islatzen dira. Azkenik, *Las buenas intenciones* argentinarrari dagokionez, autofikzio-biografia gisa garatzen den aita banandua duten hiru anai-arreben istorioa kontatzen da. Gaiak, ikuspuntu ezberdinetatik harreman hauen eta zinearen arteko zubian hausnartzera gonbidatzen gaitu. Zinemagilearen denbora ama(aita)-denborarekin nola bateratzen den pentsatu daiteke, eta ea horrek baduen pisurik gaia aukeratzeko orduan. Harreman unibertsalak izateak ere baluke garrantzia kasu honetan: finean, denok (izan) gara ama-aita, seme-alaba, aitona-amona... eta horrek dakartzan afera batzuk ezagun ditugu.

Era batera edo bestera izan, errepikatzen diren gaiek beti deitzen dute atentzioa, sorkuntza prozesuko ardatz nagusiak hilabetetan eta urtetan hartzen baititu zuzendariak. Hobe zeharkatzen dituzten gaiak izatea, hasiera batean behintzat. Amaierarako, agian, ez dute gaiarekin ezer gehiago jakin nahi izango. Edo bai, eta bigarren batean sakonduko dute lehenengoan jorratutako gaia. Dena dela, ikusi beharko da datorren urtean aldatu egingo diren edo ez aurten ikusitako tematikak. Gizartearen interesak aldatzen direnaren seinale izan daiteke. Bitartean, pantailaz haragoko bizitza berreskuratzera. ●

Perlak sailetik pasa den *Diu jiu tian chang* filmak galdutako ume baten hutsunea betetzen saiatzen diren gurasoak erakusten ditu.

Mercè Panyella, Sandra Martínez

CUIDEM LLUÇANES KOOPERATIBAKO KIDEAK

"Esan didatenean 'zu zara nagusia', itzuli egin diet ardura hori"

Olatukoop sarearen baitan, emakume migratzaileentzako zaintza lanen kooperatiba sortu nahian dabiltza Hiritik At, Talaios eta Parean elkarte irundarrak. Bide horretan informazioa eta eztabaida zabaldu asmoz, jardunaldiak antolatu ditu Olatukoopek eta beren esperientzia kontatzera gonbidatu dituzte Mercè Panyella eta Sandra Martínez Díaz, Cuidem Lluçanes Kataluniako zaintza kooperatibako kideak.

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Noiz eta nola jaio zen kooperatiba eta zein unetan zaudete orain?

M. Panyella: Lluçanes eskualdean bizi gara; oso eskualde txikia da: 400 kilometro koadrotan sakabanatuta dauden hamahiru herri, guztira 7.500 biztanle. Bertako partzuergotik azterketa bat egin zen eta ikusi zuten eskualdean emakume ugari zegoela langabezian edo beltzean lan egiten, baita biztanleria zahartzen ari zela ere, eta proposatu zen zaintzan eta garbiketan oinarritutako kooperatiba sortzea. Duela kasik bi urte izan zen hori.

S. Martínez: Partzuergoaren laguntzaz, hamar laguneko talde bat jo eta su aritu ginen bederatzi hilabetez, eta bidean aholkularitza jasota, duela urtebete inguru zerbitzu kooperatiba sortu genuen. Sei pertsonak osatzen dugu kontseilu errektorea eta zazpi langile ari dira kontratu bidez lanean, horietatik bi kontseilu errektoreko kideak gara (ni koordinatzaile ari naiz, behar izanez gero garbitzera ere joaten naiz, eta kontseiluko presidentea familia-langile aritzen da). Kontseilu errektoreko kide izateagatik ez dugu inork ezer kobratzen eta langile bakoitzak lanaldi erdia kobratzen du, baina puntualki norberak dituen beharren eta sartu nahi eta ahal dituen orduen arabera pixka bat aldatu daiteke ordu eta diru kopurua.

MP: Helburua da etorkizunean denak bazkide izatea, baina horretarako hilero bakoitzarentzat 400 euroko gutxieneko bat segurtatu behar dugu lehenengo. Oraingoz, batzuk langile huts dira, beste batzuk langile eta kooperatibako bazkide eta beste batzuk bazkide baina ez langile.

SM: Izan ere, kontsumitzaile-bazkide figura ere badaukagu: zerbitzu bat jaso nahi dutelako hilero 20 euroko kuota bat ordaintzen duten Lluçaneseko biztanleak dira, 180 bazkide guztira. Horietako batzuek gure zerbitzuak jasotzen dituzte, beste hain-

FRUSTRAZIOA ETA PASIOA

Sandra Martinezen hitzetan, "trabak daude eta errealitatea frustragarria da hainbatetan. Gestorian negarrez amaitu nuen egun batean, asmo onez beterik ari zarelako eta sistemak zapaldu egiten zaituelako sarri, baina bide zidorrak asmatzen goaz, aurrera segitzeko. Egia da egunerokoa ero samarra dela, dena koadratzea eta puzzle lana ongi egitea, eta bilatzen dugun gertatutasuna mantentzeak ere denbora eskatzen duela; koordinazio lana adibidez ez baitut paper gainean egiten, langileok elkar entzuten dugu, baten eta bestearen etxean eztabaidatzen dugu kafe bat hartuz… baina nire pasioa dira harreman pertsonalak. Pasiorik gabe ez ginateke halako zerbaitetan sartuko".

IRUDIAN, BATZAR KONSTITUZIOGILEA. PEDAGOGIA LAN HANDIA EGIN BEHAR DELA DIOTE ELKARRIZKETATUEK, ZAINTZA LANETAN ARITZEN DIRENAK PREKARIETATERA DAUDELAKO OHITUTA, "AGINDUAK JASO ETA TXINTIK EZ ESATERA, BATEZ ERE MIGRATZAILEAK DIREN EMAKUMEEN KASUAN".

bat egin dira bazkide etorkizunean zerbitzuok jaso nahiko dituztela pentsatzen dutelako, eta bada proiektuan sinesten duelako bazkide egin denik ere.

Jardunaldien izenburuak dio: "Elkar zaintzeko kooperatzen dugu? Generoa, zaintza lanak eta migrazioa". Elkarri lotuta egon ohi dira generoa, zaintza eta migrazioa. Zuenean ere hala al da?

SM: Ia denak emakumeak gara, bai. Gizon bat dugu kontseilu errektorean eta beste bat haurrak eskolara laguntzeko eskaintzen dugun zerbitzuan, baina ditugun beste bi zerbitzuetan, garbiketa lanetan eta zaharren zaintzan, emakumeak dira langile guztiak. Eta horietako bi migratzaileak dira.

MP: Lan feminizatua da zaintza, baliorik ematen ez zaiona, betitik emakumeek etxean egina, edo beltzean egiten dena.

Prekarietatea eta esplotazioa ere lotzen ditugu zaintza lanekin. Horren aurrean, zer ematen dizue kooperatibak?

MP: Hasteko, gurean zaintza bi norabidetan doa: zerbitzua jasotzen duenaren zaintza eta langileon arteko zaintza, norbere egoera pertsonala, kontziliazioa, beharrak… kontuan hartuz.

SM: Egiten dugun horretan aitortuak, errespetatuak eta zainduak sentitu gaitezela langile guztiok. Eta bestela agian izango ez lituzketen eskubideak ere ematen dizkie kooperatibak emakume langileei. Bestalde, kooperatibaren filosofia barneratzea ez da denentzat erraza, ez delako kooperatiba mundutik datorren jendea eta pedagogia asko egin behar da. Prekarietatera daude ohituta, aginduak jaso eta txintik esan gabe bete behar izatera, beltzean lan egitea da eurentzat normalena eta konfiantza falta sortzen die hasieran gurea bezalako proiektuak. Adibidez, lan harremanak aldatzeko zailtasunekin egin dugu topo, hierarkiekin, batez ere migratzaileak diren emakumeen kasuan: "Zu zara nagusia, zuk erabakitzen duzu" esan izan didatenean, itzuli egin diet ardura hori; "zerbitzu hau atera da, egin nahi duzu? Nik ez dizut lana antolatuko, zuk erabaki". Noizbehinka beraiekin batera aritzen naiz garbitzen. Finean, berdinen arteko harremana da, baina hainbati zaila egin zaio ulertzea.

Eta lortu duzue erabakimen eta ardura horiek bere egitea langileek?

SM: Bai. Langileetako bati esaterako beste lan bat eskaini diote, ordu gehiago eta diru gehiago, eta ezetz esan du, hain gustura dago enpresa molde honetan. Orain gehiago inplikatzen dira, eurena sentitzen dutelako kooperatiba, eurena ere badela ulertzen dutelako. Dena ongi joan dadin kezka eta ardura dutela agerikoa da.

Ahalduntzeko tresna ere bada kooperatiba, orduan.

SM: Erabat. Hasieratik dugun helburua da eta indarkeria matxista jasan duten emakumeak ahalduntzeko taldeak ere baditugu. Izan ere, zerbitzuen eskaintza zabaltzen joan nahi dugu: dolua lantzeko taldeak, migratzaileentzako katalan ikastaroak…

MP: Beti ere, pertsonak zaintzea izanik eskaintzen ditugun zerbitzuen abiapuntua. Hasieran adibidez, enpresetan garbiketa lanak eskaintzea genuen buruan, eta probatu genuen, baina ikusi genuen ez zihoala gure filosofiarekin bat, ez genuela hori nahi. Gauza bat da etxe batean sartu eta bizitzaz beteta dagoen etxe hori garbitzea, lan hori egin ezin duen horri laguntzea, eta beste bat enpresa handi bateko hoztasunean aritzea. Probatu genuen eta ez zuen funtzionatu; enpresa eta negozio txikietan, familiarretan bai, garbitzen dugu.

Txikitik aritzea nahiago duzue, hortaz.

SM: Enpresa handi bihurtuko bagina, hurbileko tratu hori galduko genukeela uste dut eta hori ez da nahi duguna. Hiri handiagoetan aritzeko eskaintzak izan ditugu, baina ez da gure ideia. Bizi garen landa eremuko neurrira pentsatutako kooperatiba da gurea. Gainera, bezeroarenganako tratuan ere nabari da landa eremukoak garela, erraza da bizilagunaren etxera sartu eta harremanak behar bezala zaintzea. Oraindik ate joka gabiltza: bisita egiten diegu zerbitzuaren kontsumitzaile izan daitezkeenei, haien etxeetara goaz solastatzera. Menpekotasuna asumitzea ez da erraza, eta landa eremu honetan, *payés* baserritarrei maiz are zailagoa zaie laguntza onartzea. Lan hori ere egin behar da.

Nola ulertzen duzue zaintza?

MP: Guretzat zerbait sakona da, pertsona artatzetik harago doana, eta aldi berean, modu xumean ulertzen dugu. Begiradan dago gakoa, besteari nola begiratzen diodan, ume nahiz zahar berdinetik berdinera, parekoa minusbaliatu ordez.

Zuen hitzaldian, zein mezu helarazi nahi diozue Euskal Herriko jendeari?

MP: Zaintza kooperatiba batek gai batzuei irtenbidea bilatzen diela, baina ez denei, hainbat gai legal eta politikori ezingo diogulako aurre egin. Hala ere, hobe da sinesten dugun horretan aurrera egitea, eta behar izanez gero, desobedientziatik. ●

Donostiako Zinemaldian euskal youtuberrak falta direla salatu dute euskalgintzako eragileek

EUSKALGINTZAKO ORDEZKARIAK AGUR ETXEBESTE IKUSTERA NOIZ SARTUKO ZAIN

Donostiako Nazioarteko Zinemaldiaren 67. edizioa amaitu da, baina zeresana ematen jarraituko duela dirudi: euskalgintzako hainbat eragilek agerraldi bateratua egin dute aurtengo edizioan gertatutakoa salatzeko. "Programazioan ez da egon gustatzen zaigun ezer", salatu dute prentsaren aurrean agertu diren ordezkariek, gehienak 60 urte ingurukoak eta kantu-jiratik etorri berriak. "Zergatik ez dute festibal horretan dirua gastatu ordez euskarazko youtuberretan inbertitzen? Gazteei orain hori gustatzen zaie", adierazi dute zertaz ari diren dakitenaren itxurak eginez. Zinemaldiak dagoeneko aurreratu du prentsaurrekoaren bideoa 2020ko edizioko Zabaltegi-Tabakalera sailean sartuko dutela: "Pelikula arraro bezala ez du parekorik". ●

SAREAN ARRANTZATUA

2019ko Kopeta Eguna

Irudia: Exprai

Euskal daltonikoen elkartea

Ugarteko I pilotariak ordezkatuko du Joxean Tolosa ETBn

Albistea jakina zen Deustuko pilota eskolan. "Aurreko astean esan zigun. Praketan kabitu ezinda zegoen. 'Joxean Tolosa ordezkatuko dut!' zioen pozarren!", azaldu digu Punpa Lasterra ertzain buruak. Arkaute eta Deustu artean mugitzen da Iñaki Larrea 'Ugarteko I': "Besteen begia non, hantxe jartzen du pilota. Eskuz-burukoan maisu, partiduak galduta ere apustuak irabazten ditu. Galdetzen diogunean ea zein den bere sekretua, '*Entrar con todo!!*' erantzuten digu". Mikrofono aurrean ere fenomeno hutsa dela diote haren lankideek, Joxean bera baino are naturalagoa. "Epaitegiko deklarazioak entzutea besterik ez dago, a zer *soltura!* Aurki ahaztuko ditu ikusleak *Eongo gatxik* eta gainerako tolosakeriak". ●

Eskuratu

2020

EGUTEGIA

DUELA 30 URTE

Gaurko egunez...

1990eko otsailaren 11n

Nelson Mandela askatu zuten Hegoafrika
27 urte preso eduki ostean. Apartheidar
aurkako eta Afrikako Kongresu
Nazionaleko militantea zen. Aurretik,
borroka armatuan aritu zen Umkhonto
we Sizwe erakundean. Kartzelatik irtet
elkarrizketa eta adiskidetzea bultzatu
zituen. Hegoafrikako presidente hauta
zuten eta Bakearen Nobel Saria emar
zioten. AEBen terroristen zerrendan
zen 2008ra arte.

DUELA 40 URTE

Gaurko egunez...

1980ko maiatzaren 14an

Martin Zabaleta hernaniarrak Ev
gailurra erdietsi zuen, Pasang T
sherparekin batera. Lehen eusk
izan zen munduko mendirik ga
igotzen, euskaldun talde batek
espedizioan. Gailurrean ikurrin
eta nuklearren aurkako bande
ETAren anagrama jarri zituzte

DUELA 35 URTE

Gaurko egunez...

1985eko uztailaren 7an

Martuteneko espetxetik ih
zuten Joseba Sarrionandia
Pikabea presoek, Imanol L
emandako kontzertua pro
bozgorailuen barruan ezk
Pikabea bi urtera atxilotu
baina *Sarri* kanpoan bizi i
geroztik.

Gaurko egunez...

1977ako martxoaren 8an

Egin zituzten Euskal Herrian lehen
aldiz M8ko deialdiak. Bilbon egin
zuten mobilizaziorik jendetsuena eta
700 emakumetik gora batu ziren
Munduko emakume danen borrokarekin
elkartasuna lelopean. Hala ere, ez zen
deialdi bakarra izan. Gasteizen deitua
zuten manifestazioa debekatu zuten.
Donostian EAM eta ADM taldeek
ekimenak egin zituzten.

Historia gurea da, jendearena.
Gogoratu, partekatu eta
zabal ezazu egunero ahaztu
behar ez den mundu zati bat.
ARGIArekin egunero efemeride bat.

9€

ARGIA **AZOKA.ARGIA.EUS** **943 37 15 45**

URRIAK 12
DONOSTIAN
DESKOLONIZA GAITEZEN!

ARGIAREN MENDEURREN FESTA

URRIAK 11 OSTIRALA

21:00 ***NAPARDEATH***
FILM TRILOGIA IKUSGAI
TRINITATE PLAZA

URRIAK 12 LARUNBATA

11:00 **ZOMORRO BILA URGULLEN**
Iñaki Sanz biologoa eta Eñaut Aiartzaguena marrazkilariak gidatuta.
TRINITATE PLAZATIK HASITA

12:00 **IBILBIDE HISTORIKOA KALEZ KALE**
Txistulariek gidatuta, Urko Apaolaza historialariaren azalpenekin eta Beñat Gaztelumendi eta Miren Artetxe bertsolariek zirikatuta.
TRINITATE PLAZATIK HASITA

13:00 **SOKA-DANTZA**
KONSTITUZIO PLAZA

14:00 **BAZKARI HERRIKOIA**
Saizar sagardo barrika, mahaiak eta aulkiak.
Janaria bakoitzak berea eraman.
TRINITATE PLAZA

16:00 ***POBRESIAK***
EMANALDIA
TRINITATE PLAZA

17:00 **PAILAZOAK**
Txirri-Mirri-Txiribiton Junior-en emanaldia.
SAN TELMO PLAZA

18:00 **NAN ARROTZEN JAURTIKETA TXAPELKETA**
TRINITATE PLAZA

19:00 **KALEJIRA DANTZARIA**
TRINITATE PLAZATIK ABIATUTA

20:30 **KONTZERTUAK**
TRINITATE PLAZA
AMAREN ALABAK
MURSEGO
BALERDI BALERDI
NIÑA COYOTE ETA CHICO TORNADO

ANTOLATZAILEA:

ARGIA

BABESLEAK:

Nafarroako Gobernua / Gobierno de Navarra · Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco · Bizkaia foru aldundia · Gipuzkoako Foru Aldundia · Orain Kultura · eke icb Euskal Kultur Erakundea / Institut Culturel Basque · Donostia San Sebastián · ELA Euskal Sindikatua · +tu Euskal Herriko lesbiana, gay, bisexual, trans eta intersexualen elkartea · stellas · Tinko · Laboral Kutxa

LAGUNTZAILEA:

SAIZAR